

ELKAR GURUTZATUTAKO BIZITZAK IRUNGO MUGAN: ENTZUTEAREN FRUITUAK

IRAGAITZAZKO MIGRATZAILEENTZAT
LAGUNTZA PSIKOSOZIALAREN BEHARRA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbide, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN

Egilea:

Eva Aranguren Elozegui

Argitaratzailea:

SOS Racismo Gipuzkoa www.sosracismogipuzkoa.org

Argitaratze-data:

Enero de 2023

Argazkiak:

Gari Garaialde

Euskarazko itzulpena:

Alba Aranguren Elozegui

Diseinua eta maketazioa:

SISEVE www.siseve.es

Inprenta:

Leitzaran Grafikak

Finantzatutako txostena:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirola Departamentua

HITZ AU RRE A

Elkar gurutzatutako bizitzak Irungo mugan: entzutearen fruituak. Iragaitzazko migratzaileentzat laguntza psikosozialaren beharra izeneko dokumentua Gipuzkoako SOS Arrazakeriak egindako ikerketa baten emaitza da. Proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren laguntza du, Nazioarteko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiak onartutako 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan, Garapen Iraunkorreko Helburu Berriei loturik agertuz. Ikerketa hau 2022ko martxoa eta azaroa bitarte burutu da, landa-lanaren bidez egina izan delarik.

Lanaren lehen helburua, Irunen dauden iragaitzazko migratzaileen kontakizunen bidez euren bizipen eta errealitateak zabaltzea da, arlo emozionalean zentratuz, ikuspegi feministarekin eta pertsona migratzailearen narratibatik. Kontatutako istorioak benetako istorioak dira, eurek bizitako gertakariak, eta protagonisten ahotik kontatuak. Gertakariak jasotzearen bidez, pertsona guzti hauei ahotsa ematea izan da bilatutakoa.

Bigarren helburua, dagozkien erakundeei pertsona migratzaile hauen ongizatea hobetzeko sortutako proposamenaren arrazoiak helaraztea izan da, kontuan izanik migrazio prozesu askotan alderdi hau ahaztu egiten dela. Proposamen hau Irungo Hilanderas kalean Gurutze Gorriak kudeatzen duen harrera zentroan laguntza psikosozialeko baliabide profesionalizatu bat martxan jartzea izan da.

Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeak dira parte hartzaileen jatorrizko herriak: Kamerun, Ginea Konakry, Ginea-Bisau, Mali, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Somalia, Burkina Faso, Senegal, Gambia, Afrika Erdiko Errepublika, Boli Kosta eta Mauritania.

Mugaren errealitatea eta bertako zailtasunak, bai eta iragaitzazko migratzaileen behar emozionalak bertatik-bertara ezagutzen dituen Eva Aranguren Elosegui psikologoa da lan honen egilea.

AUR

KI

BI

DE

A

1. Sarrera	7
2. Metodologia	11
3. Jatorrizko herrialdetik ateratzea	13
3.1. Migrazioaren arrazoiak	14
3.2. Migrazio bidea	16
3.3. Migratzen duten pertsonen ondorio psikosozialak	21
4. Bidasoaldea, mugaldea	25
4.1. Irun, mugaldeko hiria	25
4.2. Pateren erreskatetik, Irunera iritsi bitarteko prozedura	28
4.3. Mugako kanporaketa prozedura	33
4.4. Zailtasun linguistikoak	38
4.5. Iragaitzazko pertsona migratzaileentzako harrera zentroa Irunen	40
4.6. Irundik pasatzen diren pertsonen perfila	42
4.7. Iragaitzazko pertsona migratzaileen beharrak	53
4.8. Irungo Harrera Sarea (IHS)	54
5. Zaurgarritasun handiko kolektiboa: inoren kargura ez dauden adingabeko migratzaileak	57
6. Mugari etekina ateratzea: pasantearen irudia	63
7. Heriotzak eta desagertzeak	67
7.1. Heriotzaren kultura	69
7.2. Desagertzea	70
8. Amaierako gogoeta batzuk eta proposamen bat	73
8.1. Ikertzen jarraitzeko beharra	81
8.2. Proposamena	82
9. Erreferentziak	85

1. SARRERA

Errealitate horietako bat 2018 urteko ekainean hasi zen, Sos Arrazakeriak Saharaz hegoaldeko jatorria zuten 15 bat pertsonen Irungo autobus geltokian azken gauak igaro zituztela salatu zuenean. Horietako batzuk euren migrazio bidea jarraitu eta Frantzia edo Europa iparraldeko herrialderen bat zuten helburu, beste batzuk aldiz, Irunen gelditu nahi zuten eta gainontzekoek ez zekiten zer nahi zuten, ez eta ere zeintzuk ziren eduki litzazketen aukera ezberdinak. Lau urteren ondoren, oraindik ere Europako herrialdeetara bidea irekiko dien aukeratako bat izaten segitzen du Irunek.

Ez dira gutxi izan Irun eta Hendaian gertatzen den errealitatea eta bertako pertsona migratzaileak ezagutu eta ikusaraztera gerturatu diren komunikabideak. Artikuluak argitaratu dira, irratiak gerturatu, telebista kate ezberdinek interesa erakutsi dute, penintsula osoko unibertsitateak hurbildu dira, grabaketa ezberdinak burutu dira, bai eta zuzeneko telebista saioak ere.

Egunero iristen dira Irunera iragaitzazko pertsona migratzaileak, gehienak Saharaz hegoaldeko jatorrizkoak, helburu ezberdinak jarraituz: muga gurutzatu eta Frantzian bizitza berri bat sortzea, Alemanian elkartzea edota jatorrizko herrialdeko unibertsitateak eskaintzen ez duen kalitatezko hezkuntza bat jasotzea. Pertsona hauek bizi duten errealitatea sakonki ezagutzea oso zaila da; hiruzpalau egun soilik egoten dira Irunen, taldean beti, egunean bertan egiten dute muga zeharkatzeko saiakera, diskretuki jokutzen dute, eta batez ere, migrazio prozesuan bizitako guztiaz babesteko harresi emozional bat sortzen dute. Hala ere, pertsona hauek hitz egin nahi izaten dute, bizitzen ari direna kontatzeko grina dute, haien desira eta beharrak helaraztekoa. Galdera eta zalantzak ere izan badituzte, baina batez ere, haiek diren iragaitzazko pertsona migratzailearen azaletik bizi duten errealitatea kontatzeko gogoia dute.

*Irunen
errealitate
ezberdin
asko daude
kontatzeko*

Dokumentu hau Irungo errealitatearen beste alde bat ezagutu nahi duen pertsona orori zuzendua dago, hiritik pasatzen diren pertsona hauen egoera emozionala ezagutu eta euren ongizate emozionala hobetzeko beharrezkoak diren errekurtsio psikosozialen garrantzia ulertzea bilatzen duen horri hain zuzen ere.

Pertsonen anonimotasuna babestearren, dokumentuan zehar erabiltako izenak fikziozkoak izango dira.

Euren istorioaren zati bat elkarbanatu nahi eta ahal izan duten pertsona miresgarri guzti horien esker onez sortu da dokumentu hau, haien ekarpenik gabe ezinezkoa izango baitzen lan hau aurrera ateratzea.

Txosten honen lehenengo zatian migrazioaren testuinguru orokorra egiten da. Iragaitzazko pertsona migratzaileen alderdi ezberdinak aztertzen dira, zeinak Irunera iritsi arteko migrazio bidean eragina izan duten: jatorrizko herrialdea uzteko arrazoiak, migrazio bidean

bitzako zailtasunak, pairatu ditzaketen ondorio psikosozialak edota bizi eta sentitutako beldurrak. Testuinguru orokorra konprenitzea ezinbestekoa da pertsona indibidualak ulertu eta haiekin enpatizatu ahal izateko.

Bigarren zatian Bidasoaldea izango da protagonista, bertan ematen diren egoera ezberdinak aztertuko direlarik: migratzaileek mugarekiko duten harremana, aurkitutako zailtasunak eta Gurutze Gorriak kudeatzen duen iragaitzazko pertsona migratzaileentzako harrera zentroa. Zaurgarritasun egoera larrian dagoen Inoren Kargura Ez dauden Adingabeko Migratzaileen kolektiboari buruz ere hitz egingo da, bai eta gertatutako heriotza eta desagerpenei buruz ere. Errealitate honen baitan sortutako figura bat aztertuko da ondoren: pasantea. Bukatzeko, gogoeta orokorrak aurkeztuko dira, eta proposamen zehatz bat burutuko da: errespetua, errekonozimendua eta zaintza oinarritzat hartuta, iragaitzazko pertsona migratzaileei beharrezkoa duten laguntza psikosozial eta emozionala eskaintzea.





2. METODOLOGIA

Dokumentu hau osatzeko burututako landa-lanean 99 iragaitzazko migratzaile izan dira elkarrizketatuak, 2022ko martxotik 2022ko ekainera bitarte. Egindako elkarrizketak erdi estrukturatuak izan dira, galdera gako batzuk oinarritzat hartuta. Elkarrizketatutako lagunei askatasun osoa eman zaie nahi duten gaiei buruz hitz egiteko, egindako ekarpen guztiei garrantzia handia emanez. Horietako batzuk gai sakonak jorratu dituzte, eta bizitako esperientzia mingarri eta pertsonalak kontatu nahi izan dituzte. Beste batzuk aldiz, nahiago izan dute euren migrazio bidean gurutzatutako herrialdeak izendatu, edota Europara iristeko behar izan dituzten urte kopuruei buruz hitz egin.

Elkarrizketa batzuk mugan bertan egin dira, beste batzuk Irungo Harrera Sarea kokatua dagoen udaletxeko plazan, eta gainontzekoak Gurutze Gorriak kudeatzen duen Hilanderas kaleko harrera zentroaren kanpoaldean. Elkarrizketa gehienak frantsesez eginak izan dira, eta beste gutxi batzuk ingelesez. Kontuan izan behar da dokumentu honetan aurkeztutako datuek ez dutela Irunen dauden iragaitzazko pertsona migratzaile guztiak gain hartzen, haietako batzuek entzutearen islada dela soilik.

Txosten hau egiterakoan, burututako 99 elkarrizketatik 20 istorio eta kontakizun izan dira erabilitakoak, eta nahiz eta kopuru honek txikia dirudien, kontaktutako bizipenen lagin esanguratsua dela esan daiteke. Ez da ahaztu behar pertsona guzti hauek oso egun gutxi igaro dituztela Irunen, eta haien momentuko helburu nagusia muga hau ahalik eta azkarren pasatzea dela. Gainera, elkarrizketak kanpoaldean egiteak, pertsonen nekeak, lehen bait lehen muga gurutzatzeko nahiak, mugak berak sortzen duen antsietatea eta hitz egiteko beldurrak kontakizun guzti hauei balore handia ematen diete.



Elkarrizketatutako 99 lagunetatik 11 emakumezkoak dira, eta 88 gizonzkoak. Emakumeen taldean 4 “dublinatuak” izan dira, batek nazioarteko babes eskatu du eta besteak turista bisatua du. Gizonen taldean aldiz, 9 dira “dublinatuak”, horietako bat birritan izanik, beste 14-ek nazioarteko babes eskatu dute (hauetako 5-ek Frantziar eta Espainiar Estatuetan), eta gainontzeko 5-ak legez Inoren Kargura Ez dauden Adingabeko Migratzaile gisa aitortuak izan dira.

	EMAKUMEAK	GIZONAK
Pertsona kopurua guztira	11	88
Pertsona “dublinatuak”	4	9 Hauetako bat bi aldiz “dublinatua”
Nazioarteko babes eskatzaileak	1	14 Hauetako bostek babes Frantzia eta Espainiar Estatuetan eskatu dute
Inoren Kargura Ez dauden Adingabeko Migratzaileen	0	5
Turista bisarekin	1	1


“Dublinatuak” eta “nazioarteko babes” kontzeptuak aurrerago azalduak izango dira.

3. JATORRIZKO HERRIALDETIK ATERATZEA

Atal honetan, Irunera iristen diren pertsona migratzaileen testuingurua aztertuko da. Testuinguru honek euren historia, kultura, ohitura eta bizimoduen berri ematen digu eta aldi berean “zer gertatzen den”, “zer behar duten” eta “zer egin dezakegun” ulertu eta aztertzeko aukera ematen digu.

Migrazioa fenomeno unibertsal eta estrukturala da, gizateriaren historiaren lehen garaietan sortua eta zuzenean elikatzen duten arrazoi batzuk honakoak dira: gerra zibilak, jazarpenak, pobrezia eta aldaketa klimatikoa [Aranguren, 2022; Organización Internacional para las Migraciones, 2018].

Migrazioa, fenomeno sozial gisa ulerturik, historian zehar herrialde guztietan eman dela esan daiteke; batzuetan atzerriko biztanleriaren hartzaile gisa agertu da eta besteetan aldiz, berezko biztanleriaren igorle moduan.



3.1. MIGRAZIOAREN ARRAZIOIAK

Migratzeko arrazoi nagusiak lanarekin, familiarekin eta ikasketekin zerikusia dute gehienetan, baina gatazka armatuak, norberaren erlijio edo etniaren ondorioz pairatutako jazarpenak eta mehatxuak edota giza eskubideen urraketak, migratzeko erabakia hartzerakoan pisuzko arrazoi bilakatzen dira ere [Aranguren, 2021].

Aruj-ek (2008) ere bere ekarpena egiten du migrazioaren arrazoiak zeintzuk izan daitezken argitzen, eta besteak beste, lan falta, erlijio-ideologia-politika-etnia arrazoiengatik jazarpena, indarkeriaren ondorioz sortutako segurtasun gabezia, norberaren edo familiaren garapena, formakuntza eta lan aukera edota ondasun eta zerbitzuekiko eskuragarritasuna dira lotzen dizkion zergatietako batzuk.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat fedea eta erlijioa dira. Fedetasun honek, gertakizun guztiak Jainkoaren borondate direla sinestera eramaten ditu eta norberaren patua bera ere, Jainko honen eskuetan uzten dute [Abdelaziz y Fernández, 2019].



Allahk nire bidea zein den erakusten dit, eta nire patua bere eskuetan dago dio Abdouk, jatorriz Malikoa den gazteak.



Boureima Burkina Fasoko 23 urteko mutila da eta herrialdea uztearen bere arrazoia gerra zibila izan zen. *Gerra izan zen herrialdea uztearen arrazoia, eta gogoz kontra izan bazen ere, ihes egin behar izan nuen. Zuek jakin ez arren, nire herrian ere gerra dago.* 2020an irten zen Burkina Fasotik, eta 2022an iritsi zen Kanariar Uharteetara, Marokotik patera batean abiatu eta gero.



Marokon Enpresen administrazio eta Zuzendaritzako goi mailako zikloa hasi nuen, eta Frantzian lan aukera onak ematen zituzten goi-mailako unibertsitateak zeudela jakin nuen. Nire ikasketak Frantzian jarraitu nahi nituela erabaki nuen dio Mohamedek irribarretsu. Senegaldarra den 19 urteko mutila da. Bera ere 2020an atera zen bere herrialdetik, eta bi urteren ondoren Europara iristea lortu du, ikasteko asmoz. Oraindik ez daki bere helburua lortzerik izango duen, ez baititu paperak erregulatu eta ez baitaki ikasteko aukera emango dioten ere.

Emakumezkoen kasuan, migratzeko arrazoiak biderkatzen dira: jazarpenak genero arrazoiengatik, sexu-esplotazioa helburu duen emakumeen salerosketa, ezkontza inposatuak, emakumeen genitalen mutilazioa edota orientazio sexuala [Andrades, Gandarias, Ferri y de Lucas, 2020; Gandarias, 2017].



2019 urtean bere herrialdetik ihes egin zuen 21 urteko emakume Boli Kostarra da Jeannet. 14 urte zituela, bera baino dezente nagusiagoa zen gizon batekin ezkontzera behartu zuten, eta lau urte pasatu zituen gatibu. Lau urte luze horietan egunero jasan zituen tratatu txar fisiko eta sexualak. Lagun batekin antolatu zuten ihesaldia, euren betiko lurraldea uzteaz gain, Europara migratzeko ihesaldia zen hura. Bazekien Europan ez zirela ezkontza inposatuak egiten. *Gizon horrekin ezkontzera behartua izan ez banintz, Afrikan bizitzen jarraituko nuke. Eta are gehiago bizitako bidaiaren ondoren. Ez dakit bietako zein aukera den okerragoa.*



Mariamak aldiz ez zuen bidaia antolatzeko astirik izan. Guinea Konakriko emakume honek 2019 urtearen amaieran ihes egin behar izan zuen. *Nire senarra oposizioko kidea zen, Alpha Condé lehen-dakariaren aurkako bilera eta protestak antolatzen zituen. Gizon honen diktadurapean bizi ginen. Etxera itzuliko ez zen eguna iritsi zitekeela esan zidan nire senarrak, eta azkenean egun hori iritsi egin zen. Nik bost hilabeteko haurdunaldia nuen. Bost urteko alaba hartu, motxila bat prestatu eta ahal bezala ihes egin genuen. Herriko emakume batzuk elkartu ginen ihesaldian eta gure helburua Marokora heltzea zen, gero Europara iristen saiatzeko. Ihes egin ez bazuten, erailko zituzten. Jazarpen politikoa jasateko arrisku handia zuten, eta hau izan zen Mariamaren migrazio arrazoia. *Ez dut nire senarraren berririk harrezkerotik, eta hiru urte pasatu dira jada. Egin ziotenaren ondoren, bizirautean ari dela pentsatzen dut.**

*Norberaren herrialdea
uztea ez da kapritxoa*

[Montagud, 2019]

3.2. MIGRAZIO BIDEA

Egoera regularrean dagoen pertsona batek bizi duen migrazio bidaia eta egoera irregularrean dagoenaren bidaiaren artean alde handiak daude; mehatxuak (fisiko zein ahozkoak), gosea, bizimodu prekarioak, indarkeria eta tortura pairatzeko arriskua, erabakiak hartzeko edota ihes egiteko estrategiak antolatzeko aukera eskasa eta horrenbestez, migrazio prozesuan zehar pertsonaren duintasuna urratua izango denaren probabilitate handiagoa [Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos, 2018; Schippers, 2014]. Migrazio bidea oztopo eta zailtasun handiz josia izaten dute, diskriminazioa, indarkeria, bahiketak, lapurrekak, torturak, ura eta janaria lortzeko oztopoak, edota muga batera iristean trafikatzailer sareeri ordaintzeko inposizioa. Pertsona hauek gaizkileen harrapakin errazean bilakatzen dira, bahitu eta preso sartzen dituzte, gerora euren familiak estortsionatu eta dirua eskatzeko asmoz.

Ibilbidean zehar jasandako indarkeria psikologiko, fisiko eta sexualak eragindako sufrimenduak oso ondorio larriak ditu pertsona migratzaileen osasun mentalean [Ahotegui, 2009; OCNUDH,2018;OIM,2018], eta hauen zaugarritasuna era nabarmenean handitzen da [Doctors Without Borders, 2013].



Europako herrialde batera iritsi baino lehen, Maroko, Aljeria, Senegal edo Mauritanian hilabete batzuk (urteetan bilakatu daitezkeenak) igaro behar dituzte bidaia ordaindu ahal izateko. Hau dela eta, Nador edo Castillejos bezalakoak izan daitezken mugaldeko hiri batzuetan, oso zabalak diren komunitate ezberdinek osaturiko bizitokiak sortu dira.



Marokon oiloak, beltzak baino hobe tratatzen dituzte. Hiriko kale ezberdinetatik gindoazenean denbora guztian botatzen ziguten txistua aurpegiara. Ezer egin edo esan gabe aurrera egin behar zenuen, dio Mohammedek, lotsaz eta umilazioz. Jatorriz Boli Kostakoa da bera, eta 2019an aterra zen herrialdetik. Mali, Mauritania eta Marokotik pasatu zen Europara iritsi ahal izateko. Malin, Estatu Islamikoak bahitu eta hilabete eta erdiz preso atxiki zuten, ihes egitea lortu zuen arte. Infernu hartatik ateratzea lortu zuenean bi urte igaro zituen Marokon, Europara eramango zuen paterarako beharrezkoa zuen dirua lortzeko lanean. Ez da soilik Marokon jasotzen dugun tratu txarrarengatik. Nire bidaiak nolakoak izan den galdetzen badidazu, infernua eta hiltzeko gogoa hitzekin erantzungo dizut. Bidaiak urte bete eta urte eta erdi artean iraun zuela dio, Marokoko bi urteak kontuan izan gabe, baina ez du zehazki gogoratzen. Ez dakit, ez ditut datak zehazki gogoratzen, nire buruak nahiago izan du garai haietan bizitako basakeriak ahaztu. Hemen beldurra diozue Estatu Islamikoak zuen aurka erasoak egiteari, baina zer pentsatuko zenuke talde horretan bizirautea lortu

nuela esango banizu? Bahitu ondoren, aste luzeetan zehar Maliko herrixka batean torturatu ninduten. Haien esanetan, Boli Kostakoa izateagatik eta taldean sartu nahi ez izateagatik. Nire pertsonaren aurkako erasoak bizi izan nuen. Afrikako sei bat pertsona ginen, beltzak, badakizu, eta ia egun osoa gela batean sartuak egoten ginen, gure artean ia hitz egin gabe {...}. Zergatik ez genuen hitz egiten? Beldurrak kontrolatzen ninduen ni, eta hitz egite soilak izan zezakeen edozein ondorioaren beldur nintzen. Botere handiko pertsonak ziren, oso bortitzak, eta herrixka osoa izutua eta kontrolpean zuten. Nahi izan zutena egin zuten nirekin: nire galtzetan edota ondokoaren gainean pixa eta kaka eginarazi, hau barregarria iruditzen zitzaielako, taldeko buruek alkohola edaten eta drogak hartzen zituzten bitartean, biluzik modelo-desfile bat eginarazi ni ukitzeko eskubidea emanaz, nahi zuten guztiek bortxatzen ninduten edozein objektu baliatuz, etengabeko iseka jasotzen nuen, nire familia hilko zutela esanez mehatxatzen ninduten, gorputz osoan zehar zigarroarekin erretzen ninduten {...} Baina European nago orain, eta hemen ongi tratatuko naute.

Bidean daudenean, emakume eta neskatilek edozein indarkeria mota, eta bereziki sexu indarkeria jasotzeko arrisku handiagoa dutela azpimarratzea garrantzitsua da. Gaur egun, emakumeek bidaian zehar sexu abusuak jasotzea ia ezinbesteko jazoera bilakatu da, eta banda ezberdinetako kideen edota gizon migratzaileengandik jasotzeaz gain, mugetako langile, polizia eta beste funtzionarioengandik ere jasotzen dituzte [ACNUDH, 2018]. Emakume migratzaileak indarkeria sexual hau normalizatu dute, eta euren proiektu migratzailea lortzeko jasan beharreko baldintza moduan ikusten dute, aurreko egiteko estrategia feminista gisa. Duela urte gutxi arte, emakumeak bahitu eta sexualki esplotatu egiten zirenaren inguruan ez zen hitzik ere entzuten, eta gaur egun aldiz, kostaldera iritsitako emakume guztiak salerosketako biktima gisa sailkatzen dira. Argi dago emakume asko salerosketa sare baten menpe iristen direla Europara, eta sare hauen barruan sexualki esplotatuak direla, baina ez da emakume guztien kasua, nahiz eta migrazio bidean eta jatorrizko lurraldeetan bai jasan izan duten indarkeria matxista.

Migrazio bidea hasten dutenetik Europara iritsi bitarte lau urte pasa daitezke. Zer egin dute denbora guzti honetan? Galdetu diezaiozun gure buruari. Erantzuna? biziraun, esklabo gisa lan egin eta Europa iritsi ahal izateko dirua bildu.



Mali, Mauritania eta Marokon zehar ibili ginen. Nire haurdunaldiak, nire alaba eta ni neu babestu gintuela esan behar dut. Ez gintuzten erasotu edo bortxatu. Gogoratzen dut emakumez betetako autobus batean gindoazela Marokora bidean. Bidaiaren momentu batean autobusa gelditu zuten, eta bi gizon diru eske igo ziren. Genuen diruaren zati bat eman genien arren, ez zen nahikoa izan haientzat. Azkenean, lau emakume indarrez atera zituzten. Pare bat orduz itxaron genuen, itzuli ziren arte. (Emakumeak) autobus barrura jaurti ondoren, "muga gurutzatu dezakezue" esan ziguten. Haien begirada galduak eta eserlekuan jartzeko zuten ezintasunak argi utzi ziguten zer gertatu zen. Nola babestuko dut nire alaba abusu guzti horiengandik? kontatzen du Mariamak. Gaur egun, hiru eta zortzi urteko bi alaba ditu.



Herrialdea uztea erabaki zuten oso pertsona gutxik irudikatu zezakenez bizitako gertaera negatibo guzti horiek biziko zituela, eta hala ere, euren burua hala nola babesteko, bizirauteko eta aurrera jarraitzeko gaitasuna izan dute. Pertsona batzuek migrazio bidearen errealitatea ezagutzen zuten, lehenagotik bidaia egindako lagun edo familia-kide batzuen bidez entzuna. Baina hauen hitzetan, bidean gertatzen denaren erdia soilik jakingo balute, agian ez lukete bidaia egitea erabakiko, eta euren lurraldean bizirautean saiatzeko hautua hartuko lukete. Pertsona guzti hauek ez dute Europara egoera irregularrean etorri nahi, baina aurkitu duten aukera bakarrak, euren buruak etengabe arriskuan jartzea eragiten du.

Nork izan dezake bortxaketa, abusu, lapurreta, humiliazio, etengabeko insomnia, beldur, buruko blokeo eta hiperzaintzari buruz hitz egiteko gogo, indarra eta gaitasuna? Zinez nekeza eta traumatikoa den eginkizuna da, bai mentalki bai eta fisikoki ere. Guzti honi buruz ez hitz egitea, norberaren babes eta zaintzarako estrategia gisa ulertu daiteke, bidean zehar aurkitutako edozein egoera jasateko korrika egiten, atzera ez begiratzen eta fisiko zein mentalki indartsuak izateko garatu duten gaitasuna bezala.



Nik dirutza ordaindu nuen Espainiarako bisadoa lortzeko, baina oso gutxik lortzen dugu. Ez da jendeak ez duela lortzeko borrokatzen, baina ez dituzte baimenak ematen, eta zure jatorrizko lurraldearen arabera ere ezberdina da azaltzen du Sidik. Jatorriz Mauritaniakoa da eta hiru hilabetetarako baliagarria den turista bisadoa eman diote.

3.3. MIGRATZEN DUTEN PERTSONEN ONDORIO PSIKOSOZIALAK

Norberaren sorterritik aldentzea eta bertako pertsona maite guztiak atzean uzteak eragin handia izan dezake jendearengan. Gainera, pertsona hau hil ala biziko egoeran badago, eta bizirauteko ihes egiten badu, oraindik eta era traumatikoagoan bizi dezake gertakizuna.

Gizakien psikean sakonki eragiten duen bizi gertakizuna da migrazioa, berrantolaketa pertsonala eta egokitzeko ahalegin psikologiko handia eskatzen baitu.


Migratzen duten pertsonak, ekintzaile izateko gaitasuna dutela esan daiteke ere, muturreko egoeretan erresilientziaz jokatzeko trebetasuna garatzen dutela eta kultura ezberdineko pertsonekin harremantzearen ondorioz, pertsonalki aberasten direla [Achotegui, 2009]. Baina askoren hitzetan, migratze prozesuak dakarren estres maila altuak, gizakiok dugun egokitzeko gaitasuna gaititzen du. Gainera, hain mingarria den bizipen baten ondoren pairatzen diren osasun mental arazoak artatzeko, denbora luzea beharrezkoa dela jakina da. Modu irregularrean migratzen duten pertsonak bizi dituzten bidai baldintzak, muturrekoak eta mingarriak izan ohi dira, eta pertsona hauek honako sintoma hauek garatu ditzakete [Ventura, 2011]:

– Depresioa
– Antsietatea
– Apatia
– Fobiak
– Erru eta porrot sentimenduak
– Pentsamendu eta jokabide suizidak
– Lo egiteko ezintasuna
– Suminkortasuna eta areriotasuna
– Sintoma psikosomatikoak
– Buruko eta gorputzeko nekea

Hauetako pertsona asko erruduntasun eta otzantasan sentimenduarekin bizi dira, beldurtuta, auto-estimu baxuarekin, askotan, gorputzeko min eta amets gaiztoen bidez somatizatzen dutelarik guzti hau. [Caminando Fronteras, 2022].

Trauma fisiko eta psikologiko hauek migrazio prozesuaren alderdie-tako batzuk dira, eta Doctors Without Bordersek diotenez (2013), pertsona migratzaile askok gatazka, indarkeria, bortxaketa edota bestelako indarkeria sexualak jasaten dituzte jatorrizko lurraldeetan edota bidaiari zehar.

Nahiz eta teknologia berriek pertsonen arteko distantzia txikitzeko aukera ematen duten, besarkada, muxu edo laztan bat bidaltzea ezinezkoa da oraindik. Familiak ematen duen berotasun eta goxotasun faltak, bakardade eta etsipen sentimenduak sortu ditzake, eta honek tristura sakona sentitzera eramanez.




Alpha 18 urteko mutil ginearra da, eta urarekiko garatu duen izu sentimenduari buruz hitz egin du. Dakhlatik atera zen bere patera, Espainia helmuga zuela, eta bost egun eman zituen itsasoan. *36 pertsona atera ginen Marokotik, 4 emakume eta lau niniekin. 32 soilik izan ginen salbatuak, 4 pertsona pateran hil egin ziren. Egarriz, larritasunaz eta etsipenak jota hil ziren. Negarrak, oihuak eta otoitzak etengabe entzun genituen bost egune-tan, baina batez ere etengabe erne egon beharra sentitu genuen. Itsasoan galduak igaro genituen bost egun horietan deabrua ikusten nuen nik uretan, denak uretara bota eta ito nahiko bagintu bezala. Hilko nintzela uste nuen.* Gaur egun itsasora gerturatzea gehiegi da Alpharentzako, gainkarga emozionala sentitzen du. Berekin bidaiatzen zuten lagunak indarrez kendu zizkion itsasoak, egarri eta gosez utzi zuen, entzumen-haluzinazioak eragin zizkion, eta etxetik hasi zuen bidaiaren amaiera bertan izango zuela sentitu zuen. Errealitatea modu arrazionalen onartu behar du, baina bereziki modu emozionalen [Umaña eta Zárata, 2014]. Nahiz eta jada hilabete batzuk daramatzen Espainian, Alphak oraindik entzumen-haluzinazioak ditu, bai eta gaueko izuak eta antsietate nahaste orokortua ere. Egun, Oñatin kokatua eta ZEHAR Errefuxiatuekin-ek kudeatzen duen Larraña Etxean dago, asilo eskaera burutzen duten (bere kasuan, pertsona zaurgarria delako) pertsonentzako oinarrizko harrera zentroan.

Prozesu migratzaileen fase ezberdinen eraginez, euren jarrera, ohi-tura edo itxaropenak etengabe egokitu behar izaten dituzte eta honek askotan, estresa, antsietatea eta nahastea sortzen du haiengan. Norbanakoaren identitatea sortu, definitu eta zentzua emateko horren lagungarriak diren hizkuntza, familia, lagunak, arau kultural eta sozialak edota kode etiko eta moralak, uneoro galtzen edo aldatzen ikusten dituzte eta ondorioz, metatze -trauma efektua bizitzera iritsi daitezke [Doctors Without Borders, 2013].

Pertsona hauek talka kulturean daude etengabe, eta honek ingurugiroa ulertzeko eta bertara egokitzeko trabak eragiten dizkie.



Dena dago buruan, bizitako guztia dago buruan. Oso zaila egiten zait loak hartzea, lo hartzen dudanean, jasandakoa berriz bizitzen dut ametsetan eta berehala larritasuna eta antsietateak jota esnatzen naiz errepikatzen du Samanthak etengabe.



Zergatik ukitzen dituzue horrenbeste haurrak? Jen-deak begietara begiratzen du hemen, hori guretzat errespetu falta da. Askotan galdetu izan didate nor zen burua, edo nor deitu genuen hertzera iristerakoan, eta ez nuenez inor salatu nahi, negarrez hasi nintzen, tentelarena egin eta galdetzeari utzi ziezaioten. Baina ni ez naiz tentela. Galdera asko egiten dituzue, baina zertarako balio du horrek?

Indarkeria sexuala pairatzearen ondorio fisiko eta psikologikoak oso larriak eta iraunkorrak izan daitezke. Indarkeria sexuala pairatzetik bizirik atera direnen artean oso ohikoak dira bakardade eta erru sentimenduak. Era berean, osasun mental arazo larriak izateko arrisku handia izaten dute, izan ere, jasandako indarkeria honek eragindako traumari, bidean zehar bizitako esperientziak sortu dezaketen trauma fisiko eta psikologikoak sufritzeko arriskua gehitu behar zaio ere [Doctors Without Borders, 2013].



Askotan sentitzen dute hilko direla, “*uste nuen hiltzen ari nintzela, baina ez, bazirudien hilko nintzela, ez dakit, batzuetan ametsetan ari nintzela pentsatzen nuen, baina ez, benetakoa zen*”. Pertsona migratzaileek askotan errepikatzen dituzten esaldiak dira hauek, gertatzen ari direna ulertzeko zailtasuna eta gertatutakoari izena jarzeko ezintasuna.

Achotegui, Becerra eta Altimirrek diotenez (2008; 2013), honako hauek dira kontsultan, pertsona migratzaileengan ikusitako nahasmendu nagusiak: gogo-aldartearen nahasmenduak, trauma ondoko estresaren nahasmenduak, estres akutuaren nahasmenduak eta Ulisesen sindrome edo migratzailearen estres kronikoa deituriko sindromeak.



Nire burua babesteko estrategia, (bidairako) ezkontzea izan zen. Sexu esklabo egin ninduen, eta berak (senarrak) erabakitzen zuen nortzuk ziren nire erosleak. Batzuetan lau gizon jarraian ziren, batek bukatzen zuenean hasten zen bestea, guztiz asebetetzen ziren arte. Nazka sentitzen dut gizonengatik, eta ez soilik nahi izan duten guztietan bortxatu nautelako, nire gorputz eta arimarekiko eskubidea ere indarrez ostu didatelako baizik, bizitzeko gogo eta eskubidea alegia. Bidaian zehar sufritutakoaren ondorioz gizonekiko duen gorrotoa azaltzen du Samanthak. Gizon horrekin ezkontzea erabaki zuenean, nahiz eta hark nahi adina bortxatuko zuela jakin, gutxienez Europara iritsi arte gainontzeko gizonengandik babestuko zuela pentsatzen zuen. Ez zuen inoiz pentsatu beste gizonengandik inguratuta egongo zela. Marokora iritsi zenean, gizon harengandik banatu eta emakume talde batekin elkartu zen, eta gaur egun, oraindik ere, banandu ezinak dira, *elkarrekin gaudenean indartsuak gara, elkar laguntzen diogu, edozein gizoni aurre egiteko gai gara. Guk sufrimendu gehiago pairatzen dugu, eta haiek (gizonak) baino indartsuagoak gara.*

4. BIDASOALDEA, MUGALDEA

4.1. IRUN, MUGALDEKO HIRIA

Espainiar eta Frantziar estatuen arteko mugak 656km baino gehiagoko luzera du. Muga hitzaren esanahia banaketa da baina baita alde bien arteko konexio eta mugimendua ere. Frantziar eta Espainiar Estatuaren arteko muga bera, migrazio historia bat da, elkartrukeen historia, zeinetan muga bi herrialdeetako jendartearentzat tresna bat izan den. Espainiako gerra zibilaren ondoren, edota 60 eta 70eko hamarkadetan portugesezako, babes eta lan bila ihes eginez, muga era klandestinoan pasatzen zutenean.

Frantziara sartu aurretik dagoen azken hiria da Irun.

Jende andana joaten da egunero Hendaiatik Irunera, edo alderantziz; etxeko erosketak egiteko, merkeagoa den tabakoa erosteko, autoari gasolina jartzeko edota Frantzian bizi eta Espainian lan egiten dutelako. Muga zeharkatzeko pase ezberdinak daude: Behobia eta Santiagoko zubiak, Hondarribiatik Hendaiara doan itsasontzia, muga zabala inguratzen duen mendia zeharkatzeko aukera ematen duten beste mila oinezko bidexka.



*Baina nola doa muga hau, ez dut ulertzen, arraroa da, dio Ali izeneko gazteak Santiagoko zubia harri-duraz begiratzen duen bitartean. Baina bera ez da gaur egun muga hau ulertzen ez duen bakarra. **Zer egiten ari dira muga honekin? Zergatik eskatzen diete pertsona batzuei identifika daitezen, eta beste batzuei aldiz ez? Tamalgarria da benetan...** dio irungo biztanle batek.*





Euren bidea jarraitzeko helburuarekin muga zeharkatzen saiatzen diren iragaitzako migratzaileentzako harresi ikusezin bat dago. Poliziak egiten dituen kontrolek arraza dute oinarri, eta beltzak edo ezaugarri arabiarrak dituzten pertsonen soilik eskatzen diete dokumentazioa [El País b), 2022; El Salto, 2022]. Espainia eta Frantziaren arteko mugak ez du gurutzatu dituzten beste mugekin inolako zer ikusirik.

Muga hitzaren testuinguru juridikoa ulertzea garrantzitsua da. 1995 urtean, Schengeneko Ituna jarri zen indarrean. Itun honen bidez, Europar Batasuneko kide ziren herrialdeen arteko mugako kontrolak kendu eta Schengen Espazio honetatik kanpoaldera begirako muga bakarra sortu zen. Modu honetan, Europako herrialdeen artean zirkulazio askea baimentzen zen, honek Europar Batasuneko herrialdeen arteko barne mugak desagertzea ekarri zuelarik [Campani, 2019].

Irun, Schengen Espazioaren barruan dago, hau da, zirkulazio askeko espazioan, herrialde batetik bestera pasatzeko muga kontrolik ez dituen espazioan, hau Europar Batasuneko funtsezko oinarri arautua delarik. Baina Frantziak aplikaturiko hiru prozedurek, mugetan aldi baterako kontrolak berrezartzea baimendu dezakete. Honetaz gain, 2017-1510 Legeak erreforma berria izan du, barneko segurtasuna indartu eta terrorismoaren aurka borrokatzeko asmoz. Aldaketa honen bidez, eta mugarteko delinkuentziarekin zer ikusia duten delituak hauteman eta aurreikusteko asmoz, poliziak dokumentazioa edozein pertsonari eskatu diezaioke [Barbero eta Donadio, 2019]. Baina, nola jakin daiteke pertsona bat mugarteko delinkuentea izan daitekeela? Ezinezkoa da jakitea.

Tamalez, 2015 urtea geroztik, Frantziar Estatuak barne mugetako kontrolak berrezarri ditu, momentuan bertan herrialdean ezarria dagoen alerta terrorista justifikazio gisa erabiliz. Baina Irungo Harrera Sarea edo ANAFE bezalako elkarteek ongi ezagutzen dute erreallitatea, eta haien hitzetan muga honetan poliziak ez ditu pertsona guztiak banan-banan aztertzen, alerta terrorista bat dagoen ala ez analizatzeko; poliziek miaketa azkar baten bidez, jadanik sistematizatua eta era automatikoan burutzen duten prozedura gauzaten dute, itzulketa ahalik eta azkarren gauzatzeko asmoz (Barbero, 2022). Honen ondorioz, iragaitzako migratzaileentzat ia ezinezkoa bilakatzen da muga era guztiz legalean gurutzatzea, beste bide arriskutsuak bilatzeari ekiten diotelarik [Cronica vasca, 2022]. Baina lehen aipatu dugunaren arabera, Schengen espazioaren barruan egoteak kontrolik ez egotea dakar, eta beraz, zergatik dago etengabeko arraza profilaren araberrako kontrola Irungo muga?

Muga honekiko duten ezjakintasunak etsipenez betetzen ditu pertsona migratzaileak. Egindako bidean zehar, bizirauteko teknika eta estrategiak ikasi arren eta muga bat pasatzeko modu ezberdinak ikasi dituzten arren, muga konkretu honetan guzti horrek ez die balio. Pertsona hauek, mugak korrika eta ihesean gurutzatzen direla ikasi dute, eta aurrean duten muga zehatz hau ez da horrela zeharkatzen, horrela egiten saiatzeak ez die inongo onurarik ekartzen eta. Hendaia ezagutzeak eta pazientziak hartzeak, aldiz, modu positiboan eragiten die, eta emozionalki ez dute horren pase oldarkorra bizitzen.


4.2. PATEREN ERRESKATETIK, IRUNERA IRITSI BITARTEKO PROZEDURA

Irunen elkarrizketatuak izan diren pertsona migratzaile guztiak itsasotik iritsi dira Espainiar Estatura, eta euren paterak Itsas Salbamenduak erreskatatu zituztela kontatzen zuten denek.




Gure patera Dakhlatik atera zen, eta bost egun eman genituen itsasoan. Helena deitu nuen eta gure kokalekua bidali nion. Ordubete beranduago iritsi zen itsasontzi handi batek, paterako guztiak salbatu gintuen. BOZA, BOZA oihukatu genuen. Esan zidatenaren arabera, Lanzaroten ginen. Poliziara eta Gurutze Gorrira joan ginen ondoren. dio François izeneko 20 urteko Boli Kostarrak.


Itsas Salbamenduak erreskatatu eta segurua den portu batera iritsi ondoren, Gurutze Gorria da pertsona migratzaile eta errefuxiatuei lehen arreta humanitarioa ematen dien entitatea. Bazkide zenbaki bat ematen diote iritsitako pertsona bakoitzari. Bazkide zenbaki honek, penintsulan dauden Gurutze Gorriko beste zentroetan sartzeko eskubidea ematen die. Ondoren, karpa edo prestatutako beste gune batera eramaten dituzte, oinarrizko arreta humanitarioa eskaintzeko (arropa, estalkia, garbitzeko kit bat, motxila, janaria,...), eta txandalezko jertse eta galtza bat ere ematen diete. Denak txandal berberarekin jantziak ateratzen dira, uniforme bat balitz bezala. Pixka bat jan ondoren, 72 orduz poliziaren eskuetan gelditzen dira. Hauek galdaketa luzeak egiten dizkiete, migrazio bidaiari buruzko informazio ezberdina eskuratu nahian: mugako bideak, nondik atera zen patera, nor ordaindu zuten Espainiara iristeko, nor zen paterako patroia, nola jarri ziren harremanetan Itsas Salbamenduarekin, jatorrizko lurraldetik ihes egitearen arrazoiak, babes asiloa eskatzearen justifikazioa,... Modu irregularrean iritsi direnez, jatorrizko lurraldera bidaltzeko itzulera-neurri bat prestatzen dute, eta pertsona hauek artatzen dituzten esparruetara eramaten dituzte ondoren, hala nola, Las Raices esparrua.



Itzulera neurria



Kanariar Uharteetatik penintsulara joan ahal izateko, Espainiar Gobernuko Barne Ministerioak, mugikortasun baimen bat ematea beharrezkoa da. Itsasontziz edo hegazkinez eramaten dituzte pertsona migratzaileak Espainiar Estatu osoan zehar dauden portu edo aireportuetara. Nahiz eta Espainiatik alde egitera behartzen dituen itzulerara neurri bat izan, dokumentu hau nortasun agiri gisa erabiltzen dute. Honek aukera ezberdinak ematen dizkie, hala nola, sim txartel bat erosi, identifikatuak izan edo Gurutze Gorriko zentroetan sartu (paper hau gabe batzuetan ezin dute zentro hauetan sartu edo bertan lo egin).



Espainiako Gobernuak esparrutik irteteko beharrezkoa den baime-na eman bitarte asteak pasatzen direnez, edozein mugan gertatzen den bezala, honetan ere *pasanteek* denbora aurrezteko bide berriak sortu dituzte.



300€ eman nizkion pertsona bati. Bi egunen buruan, portuan egon behar nintzela esan zidaten. Nire antza zuen beltz baten pasaportea eman zidaten, eta itsasontziko txartela. Badakizu, ez nuen inoiz muga bat modu legalean pasa, eta honek urduritzen ninduen. Sartu nintzen eta Espainia handian nengoan dio Françoisiek.

Bilbo, Madrid, Bartzelona edo Almeriako aireportura iristen direnean, batzuetan Gurutze Gorriko langile batek egiten die lehen harrera, norberak bere bidea jarraitzeko argibideak eman asmoz. Zoritxarrez, gehienetan ez da kasu bakoitza era indibidualean aztertzeko denbora egoten, lagun hauek Espainiatik haratagoko herrialde batera mugitzeko presa dutela lehenesten da eta.



Horrelako momentuetan zure burua ez dago norabidea erabakitzeko moduan, pausatzeko beharra dut, ondoren pentsatuko dut norantz joango naizen. Gainera, momentu horretan, miseria atzean uztea lortu eta Europara sartu nintzela ospatzen ari nintzen ni.

Lehenengo momentu hauek oso gogorrak izaten dira pertsona migratzaileentzat. Kontrol-prozedurak zailak dira ulertzen eta eskainiak zaizkien sorospenetik ezberdintzea kostatu egiten da [Caminando fronteras, 2020].

Askotan biktima gisa aurkeztuak dira, infantilizatuak eta errekur-tso pertsonalik gabe. Pertsona migratzaileak gerra eta pobrezia biktima pasiboak direla dioten irudia errepikatzen da, era pasiboan sufritzen duten pertsonen irudia [Buraschi eta Aguilar, Barberon ikusia, 2022], identitaterik gabekoa; ahots propioa ez duen masa anonimo gisa.



Pateretan ateratzen diguten argazkirako soilik baliu dugu, pena ematen dugu eta gero ez digute zer nahi dugun ere galdetzen dio Aissak, Boli Kostako emakume batek.

Uste duguna baina antza handiagoa diogu elkarri, nahiz eta asimilaz-tzen zaila izan. Pertsona bakoitzak herrialdetik irteteko bere arrazoi propioa du, migrazio bide bat bai eta helmuga ere. Batzuk irakasleak dira, edota ingeniariak, igeltseroak, mekanikoak, nekazariak, autobus gidariak, zaintzaileak, etxeakoandreak, etab. eta beste batzuk aldiz, ikasleak dira, edo ikasketak Europan jarraitu nahi dituzte.



4.3. MUGAKO KANPORAKETA PROZEDURA

Police Aux Frontières (PAF), edota mugako poliziak, egoera irregularran dagoen pertsona bat gelditzen duenean, Espainiar Estatura itzultzeko prozedura ezberdinak baliatu ditzake.



Topotik jeitsi nintzen eta hemengoa banintz bezala hasi nintzen ibiltzen, badakizu. Ongi nekien Baionara eramango ninduen autobusa hartzeko tokira joateko bidea zein zen. Baina bide honen erdian, polizia kotxe bat nire aurrean gelditu zen, eta nora nindoan galdetu zidaten; lagun bat ikustera erantzun nion, gezurretan ari zara erantzun zidan. Momentu horretan, urduri jartzen hasi nintzen baina udaletxeko plazan ongi azaldu ziguten: hemengoa zarenaren itxura egin behar duzu. Zure nortasun agiria erakutsi - ez dut- bisadoa?- ezta ere. Orduan, lagun, ez duzu Frantzian egoteko baimenik, Espainiara itzuli behar zara. Eskuburdinak jarri, Behobiako zubira eraman eta bertan paper bat bete zuten. Nire izena eta jatorrizko herrialdea zein ziren galdetu zidaten, eta paper bat sinatzeko eskatu. Uko egin nuen. Frantziara sartu ezin nintzela zioen papera zela esan zidaten (refus d'entrée). Zein ondorio izango dut nik orain, berriz saiatzeko aukera izango dut edo jada fitxatu naute {...} pentsatzen nuen nik.

Aliren kasuan, *refus d'entrée* delakoa (sarrera ukatzea) erabili zuten. L332-1 artikulua esanetan, lurraldeko onarpen baldintzak betetzen ez dituen atzerritarrak, lurraldera sartzeko ezezko erabakia jaso dezake. Ezezko honen arrazoiak zeintzuk diren azaltzen dira dokumentu horretan: a) pertsona honen presentziak ordena publikoa mehatxatzea b) Schengeneko Informazio Sistemaren arabera, Frantses lurraldeetara sartzeko ezeztatzea bilatuz, alerta pertsona bat izatea c) epaile sententzia batek frantziar lurraldeetara itzultzea edo frantziar lurraldeetan zehar ibiltzea debekatu izana, edota lurraldeko administrazio debeku bat izatea (Barbero, 2017; 2020).


*Hendaiatik Irunera
itzulera egiteko hiru prozedura
edo modu daude*

Lehenengoa, lehen aipatutako dokumentuaren bidez egiten den prozedura da, adierazitako *refus d'entrée* eginez, itzulera legal bat egiteko modu azkarrena delarik. Egoera irregularrean dagoen pertsona bat gelditzen duenean, polizia frantsesak pertsona horren datuekin orri bat betetzen du, agintari eskudunak sinatzen du, pertsonari orria eman eta Espainiara bere kabuz itzularazten dute. Esan beharra dago, eskuragarri izan diren honelako dokumentu askotan, 2020ean indargabetua izan zen Ceseda artikulua agertzen dela, eta beraz, bai formen eta bai edukian ere, akats juridikoak dituela.

Bigarren prozedura Malagako akordioaren bidez erabili daiteken bidea da. 2002ko azaroak 26an "ad referendum" bidez, Malagan egindako Frantses Errepublikaren eta Espainiar Erreinuaren arteko akordioa, egoera irregularreko pertsonak berriz onartzen dituena. Frantziar poliziarengandik gelditua izan ondoren, autoritate-aldaketa bat ematen da mugako espainiar polizia nazionalekin, eta autoritate espainolen menpe gelditzen da pertsona. Hilabete luzeetan zehar, Behobia eta Santiagoko mugatan egindako behaketei esker ondorioztatu denez, ez dute prozedura hau sistematizatu. Batzuetan, gelditutako laguna Irungo polizia-etxera eramaten dute eta bertan kanporatze txostena eratzen diote. Besteetan aldiz, mugako espainiar polizia nazionalak, mugan bertan egiten du pertsonaren identifikazio prozesua, eta akordioaren orria emanez, aske uzten dute.

The image shows a French 'REFUS D'ENTRÉE' form from the 'DIRECTION GÉNÉRALE POLICE NATIONALE'. The form is for a 'PPA de' (Passage Permit) issued to a person named 'Sowol (Samiel)'. The form includes fields for the date of refusal (9/7/2021), the location (Point de passage autorisé de M...), the passport number, and the date of validity (1/7/21 to 1/7/21). The 'LES MOTIFS' (Reasons) section is checked for '(A) N'est pas détenteur de documents de voyage valables' (Does not have valid travel documents). The form also mentions 'Covid-19' and has a signature at the bottom.

Refus d'entrée, itzulera neurria



Refus d'entrée, itzulera neurria

Hirugarrena eta gehien erabiltzen den prozedura, berehalako kanporatzeak dira (devoluciones en caliente edo *pushback* deiturikoak). Egin-molde honetan ez da inolako prozedura juridikorik jartzen mar-txan. Frantziar poliziak pertsona migratzailea gelditu eta modu au-tomatikoan itzultzen du Espainiar Estatura, herrialdean ezeztapen bat eginez. Pertsona gelditu, itzuli erdia egitera behartu eta etorri den bide berberetik joan daiten behartzen du.

Zein da hiru prozedura hauen artean iragaitzako pertsona migra-tzailearentzako egokiena? Abokatu, jurista edo giza eskubideen defendatzaile bati egingo bagenio galdera hau, lehenengo bi proze-duretako bat aukeratuko luke, hirugarrena legez kanpoko prozedu- ra baita. Baina aukeratzeko irizpidea, eragin emozional eta psikolo-gikoaren arabera balitz, erantzuna ezberdina izango litzake.

Edozein prozedura erabili dezake poliziak, bai eta prozedura bat baino gehiago ere, behin baino gehiagotan gelditua izan bada. Kasu guztiak ezberdinak dira. Laminen kasuan, hiru prozedurak ezarri zaizkio.



Hiru aldiz harrapatu naute mugan, badakit hurrengoan lortuko dudala, ez dut itxaropena galduko. Lehenengo aldian topoko irteeran hartu ninduten, baimenik ez nuenez, ezin nintzela sartu esan eta etorri nintzen bide berdinetik itzultzeko agindu zidaten. Ez zidaten inongo paperik eman. Bigarren aldian, Behobiako zubitik oinez pasatzen saiatu nintzen. Ez zidaten pasatzen utzi, eta oraingoan Frantziara sartzeko baimenik ez nuela zioen paper bat eman zidaten. Eta hirugarren aldia izan zen beldur gehien sentitu nuena; Hendaiara sartzeko bidexka batetik jaisten ari nintzela hartu ninduten, polizia frantsesaren hiru kotxe etorri ziren, lau beltz ginen. Eskuburdinak jarri zizkiguten eta mugara eraman gintuzten. Tarte luze batez zain egon ginen, Espainiako polizia etorri zen arte. Haien kotxera pasa ginen, eta polizia-etxera joan ginen. Ordubete egon ginen, gutxi gora behera. Behatz aztarnak hartu zizkiguten, eta itxoiteko esan. Momentu horretan, benetan beldurtzen hasi nintzen eta lasaitzea kosta egiten zitzaidan. Kanariar uharteetara itzuliko naute, edo nire herrialdera?

Zein motatako mina egingo didate? Hemengo polizia lasaia dela eta minik egiten ez duela esan didate, baina ez dakit ba nik... Hitz egiten zidatenean, ez nien deus ulertzen, nire egoeraren beldur nintzela esan nahi nien, bai eta nire lurraldera bidaltzen baninduten, bertan akatuko nindutela kontatu ere. Gainera, gure artean hitz egitea debekatu ziguten. Azkenean, ateratzen utzi zigutenean, lurraldetik kanporatzeko agindua zuen orri bat eman ziguten, baina nik nire egoera zein zen edo zertan zegoen ulertu gabe jarraitzen nuen. Libre nago edo zer egiten dut? Gurutze Gorrira itzultzea erabaki genuen, bertan seguru sentitzen ginen, poliziarik gabe.

24 urteko gazte gambiarra den Laminek kontatzen duenez, polizia-etxera joatea oso modu traumatikoan bizi izan du berak, bidaiari zehar bizitakoak gogora ekartzen dizkio eta berriz. Bi saihets puskatu eta 10 puntu behar izan zituen zauria egin zioten Maroko eta Aljeriaren arteko hesian zegoen poliziak *eta espainiar poliziak ere muga gurutzatzeagatik jipoitzen banau?* Testuingurua ez ezagutzeak beldur eta bizipenak berpizten ditu, askotan norberaren jabe egitera iritsiz.

Muga hau egunero gurutzatzen dutenek, ez dute geldituak eta identifikatuak izateko beldurrik, ezta uneoro jarraituak edo behatuak direnaren obsesiorik. Era berean, ez dute *pasantea* ordaindu edo beren kabuz joatearen (jakinda modu honetara polizia frantsesarengandik geldituak izateko arriskua dutela) artean erabakia hartzeko beharra, edota bizitza berria hasi nahi duten lurralde horren partetik errefusa jasotzea euren azaletan sentitzen. Gainera, "legez kanpoko" gisa sailkatuak dira, gehienak geldituak, atxilotuak eta kanporatuak izatearen beldur bizi dira, eta segurtasun indarren aldetik indarkeria, abusu eta esplotazioa jasatearen etengabeko mehatxupear sentitzen dira. Egoera guzti hauek iragaitzazko migratzaileek bizi dituzte soilik.



*Gogameneko muga da hau, muga pasatzearen trukean ez zaituzte jo, lapurtu edo bortxatuko. Iru-nen zure gogamenarekin jolasten dute, honela bizi du Amadouk. Birritan saiatu zen muga zeharkatzen, eta birritan gelditu zuen frantses poliziak, ez gaituzte itsasontzitik jeitsiarazi ere. Zuzenean gure izenak eta adina galdetzera etorri dira, eta esan ondoren, Espainiara itzultzea eskatzen duen *refus d'entrée* bat egiten dizute orri batean. Zergatik izan nintzen identifikatua izan zen bakarra? Beltza izateagatik? Gainontzeko guztiak zuriak ziren... Azken urteetan muga honetan ematen den kontrol selektiboaren adibide argia dugu honakoa. Amadouk dioenez, ez da berekin jarrera arrazista duten lehenengo aldia, baina ez zuen halakorik espero Europarengandik, *Kanariar Irletara iristen garenean, Europa pertsona homosexualenganako eta emakumeenganako indarkeriarik gabeko tokia dela esaten digute, eta arrazakeriaren aurka borrokatzen dela hemen. Non gelditu da hau? Gainera, Frantziar beltz asko daudela ikusten da telebistan...**

4.4. ZAILTASUN LINGUISTIKOAK

Nahiz eta mugaldeko herri honetan jende askok hitz egiten duen frantsesez, ez da autoritate guztien kasua eta paper guztiak ez dira beti hizkuntza ezberdinetan eskaintzen. Informazio faltak eta hizkuntzarekiko ezjakintasunak, pertsonarengan ondoeza sortzen du, segurtasun falta areagotuz eta defentsarako mekanismoak garatuz.



Polizia nazionalak ez zekien frantsesez, ulertzen ez nituen gauzak esaten zizkidaten; ni ez naiz asaldatzailea, ez nituen ulertzen, besterik ez, dio Amadouk.

Pertsonen artean egon daitezken komunikazio eta ulermen ga-beziek, gaizkiulertuak sortzen ditu, gehienetan eztabaidak sortuz. Bitartekaritza interkulturalaren irudiaren falta orokorrak, gatazkak biderkatzen ditu [Buraschi eta Aguilar, Barberon, 2022]. Pertsona migratzaileek era diskretuan jokatu nahi dute eta ahalik eta gutxien ikusiak izan, eta zailtasun hauek, haien nahiak eragozten dituzte. Gainera, ahozkotasuneko kodeak, kulturari lotuak daude.

Beste pertsonekin komunikatzeko izan ditzaketen zailtasunek eragiten dieten ondoezaz gain, jasotako paper eta dokumentu gehienak gazteleraz idatziak daudela gehitzen zaie. Ziur aski, paperak eman zizkieten momentuan, frantses edo ingelesez azalduko zitzairen paperen edukia, baina denek ez dute aste askotan zehar orri ezberdinetan idatzia dagoen informazioa buruan gordetzeko gaitasuna. Orri horiei itzulpen orri bat gehitzeak pertsona hauen ondoeza nabarmen gutxituko luke.

Muga bat juridikoki ulertzea zaila da, baina muga batean gertatzen diren bizipenak ulertzea oraindik eta zailagoa egiten da



4.5. IRAGAITZAZKO PERTSONA MIGRATZAILEENTZAKO HARRE-RA ZENTROA IRUNEN

2018 urteaz geroztik, iragaitzazko pertsona migratzaileentzako harrera zentro bat martxan dago Irunen, nahiz eta urte hauetan zehar toki aldatze ugari eta sartze-ko irizpideetan ere aldaketak bizi izan dituen. Espainiako Inklusio, Gizarte Segurtasun eta Migrazio ministeritzaren menpe dagoen Giza Ekintzen Programaren baitan kokatzen da, eta kostaldetik edota Ceuta eta Melillako mugatik sartzen diren egoera irregularran dauden pertsonen harrera eta artatzeak bere gain hartzen ditu. Programa hau kudeatzen dituen instituzioetako bat da Gurutze Gorria.

Zentro hau Belaskoenea auzoan dago; Santiagoko mugako zubitik 3 km-etara, Behobiako zubitik 4,4 km-etara eta Hondarribiko barkutik 5,1 km-ko distantziara.



Zentro honetara sartzea baimentzen duten irizpideak ez dira publikoak; arreta eta asilo humanitarioa kudeatzen dituen arduradun autonomikoari egindako elkarrizketa ezberdinetan esan dutenaren arabera, kostaldetik edota Ceuta eta Melillatik sartutako egoera irregularrean dagoen edozein pertsona sartu daiteke, betiere pertsona hau iragaitzazkoa bada. Baina zentro honetara sartzerik izan ez duten pertsonen egoera ezagutzera eman den heinean, sartzeko gainontzeko irizpideak argitzen joan dira: Estatuan modu irregularrean sartutako edozein pertsona, itsasontziz edota Melilla edo Ceuta hesiaren gainetik pasatakoak, urtebete baino denbora gutxiago daramatenak herrialdean eta adinez nagusiak direnak.

Harrera zentroan eskaintzen diren baliabideak honako hauek dira: dutxak, gaua pasatzeko oheak, otorduak, oinarritzko orientazio sozio-juridikoa, errekurtsu eta zerbitzuei buruzko informazioa, arropa eta higienarako beharrezko produktuak, wifi konexioa eta medikua-
ren botika preskripzioa dutenentzako beharrezko botikak. Afiliazioa jasotzen zaie eta ondoren, bakarkako elkarrizketa bat egiten diete. Elkarrizketa honetan, alde batetik, errekurtsu eta zerbitzuei buruzko informazioa eskaintzen zaie, bai eta nazioarteko babesari eta Dublineko itunari buruzko informazioa ere. Beste alde batetik, haien ibilbi-

dea zein den ezagutzen saiatzen dira, beharrezkoa balitz eskuhartze zehatz bat martxan jartzeko edota zentroak eskaintzen dituen errekurtsuak nahikoak ez balira beste zerbitzu batzuetara bideratu edota erakundeko beste baliabideak plantan ezartzeko asmoz. 100 pertsona artatzeko gaitasuna du zentroak, eta pertsona gehiago iritsiko balira, Euskal Gobernuak sortutako iragaitzazko pertsona migratzaileentzako Kontingentzia Plana aktibatuko litzateke.

2022ko urtarrilaz geroztik, Irungo udalak iragaitzazko pertsona migratzaile guztien harrera bermatu du, Zubia deituriko inklusio zentroaren bidez. Gurutze Gorriko irizpideak betetzen ez dituzten pertsonak Zubiara bideratzen dituzte, eta tokia egonez gero, gaua bertan pasatzen uzten diete. Dena den, egiteko molde honi buruz dagoen informazioa urria da eta guztiz argitzeko informazio gehigarria lortzea beharrezkoa da.

2021.urtean, Gurutze Gorriak 7.939 iragaitzazko pertsona migratzaile artatu ditu eta 2022.urtean 6.139 pertsona, nahiz eta ez duten denek gaua bertan pasa [El Salto, 2022; Diario Vasco, 2022].

4.6. IRUNDIK PASATZEN DIREN PERTSONEN PERFILA

Irunen, iragaitzazko edozein hirian gertatzen den bezala, perfil ezberdineko pertsonak ibiltzen dira. Pertsona migratzaileak dira, iragaitzazkoak. Zentzu honetan, oso zaila egiten da iragaitzazko pertsona migratzaile baten definizioa ematea. Ez dago iragaitzazko migrazioaren definizio unibertsalik. Behin-betiko beste helmuga batera iristea helburu duen herrialde batean edo gehiagotan ematen den egonaldi mugatua gain hartzen duen terminoa liteke (ACNUDH, 2018). Iragankortasuna edota denborazkotasuna ez dago denboran mugatua: noiz da motza eta noiz luzea igarotze aldia? Bertan igarotako zenbat denboraren ondoren bilakatzen da iragaitzazko herrialdea behin betiko herrialde? Hau da Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologiako irakaslea den Cristina Blancok argitzen duena: *“Iragaitzazko migrazioa, egoera zaurgarrian egonik, momentu bakoitzean dauden tokiko gizartearen laguntza beharrezkoa duten pertsonak osatzen dute, zeinak hirugarren herrialde batera iristeko helburuz, momentuz gurean dauden. Ez ditugu kontuan hartuko beraz, egoera erregularrean dauden eta horrenbestez, zaurgarritasunik ez duten edota babes sistemetatik at geratzen diren, baina era berean, beste lurralde batera bidean dauden iragaitzazko migratzaileak”* [Blanco Barberon, 2022].

Baliabide ekonomiko ahulen eta modu erregularrean migratzeko bisatu bat lortzearen ezintasunaren aurrean, pertsona askok, migrazioa modu irregularrean egitera behartua ikusten dute euren burua. Bi bide arriskutsu daude Europara iristeko: itsasotik edo lurretik. Ba-

tzuk Mediterraneoar itsasoa gurutzatzeko asmoz, patera batean igotzen dira, eta beste batzuk Melilla edo Ceutako hesiaren gainetik salto egiten ahalegintzen dira. Edozein bide erabilita ere, euren bizitzak arriskuan jartzen dituzte.

Itsasoko bideari dagokionez, 2018 urte arte gehien erabiltzen zen bidea Mediterraneo erdialdekoa zen, Turkia eta Libiatik atera eta Grezia eta Italiara iristen zena. Bi lurralde hauetako akordioen ondorioz, irteerako herrialdeetan segurtasun eta kontrolak areagotu zituzten, errepresioa eta indarkeria handituz. Hori dela eta, Europara iristeko beste bideak suspertu ziren. Jendeak ez dio ihes egiteari utziko eta norberaren ongizatea lortu ahal izateko, edozein bide eta modu bilatuko du. 2018 urteaz geroztik, Maroko edo Aljeriatik egiten dira irteerak. Bide hauetan jende gutxiago egoten da, eta honek zaintza gutxiago ekartzeaz gain, erreskateak bideratuak izateko aukerak ere gutxitzen ditu. Gaur egun, gehien erabiltzen den eta aldi berean arriskutsuena den bidea, mendebaldeko Afrikakoa/Kanariar Uharteetako bidea da. Mauritania, Maroko edo Senegalen egiten dira irteerak, eta Kanariar Uharteak dira helmuga. Dena den, argi dago modu irregularrean itsasotik egiten den edozein bide dela arriskutsua. Distantziak luzeak dira, erabilitako ontziak ez dira egokiak eta erreskaterako zerbitzuak aktibatzen atzerapen handiak ematen dira [Caminando Fronteras, 2022 b]. Egunak eman ditzakete itsasoan, asteak batzuetan, eta gehienetan eguraldi bortitza eta itsasoko egoera izugarri nahasia izaten dute.



- 1 AFRIKAKOA/KANARIAR UHARTEETAKO IBILBIDEA
- 2 ITSASARTEAREN IBILBIDEA
- 3 CEUTAKO PASABIDEA
- 4 MELILLAKO PASABIDEA
- 5 ALBORANEKO IBILBIDEA
- 6 ARGELIAKO IBILBIDEA
- 7 MEDITERRANEO ERDIALDEKO IBILBIDEA

Ceuta eta Melillako bideari dagokionez, aldiz, informazio eskasia handiagoa dago, mediatikoki ez da hain ezaguna eta proportzioan gutxiago erabiltzen da. Ceutako Elín Elkarteak egindako *Memoria Experiencial* (2022) dokumentuan, 2010 urtetik, gaur egun arte gertatutakoa jasotzen da (ikus dokumentua, informazio gehiago izateko). Hesiaren gainetik gurutzatu daiteke, kotxeetan ezkutaturik edota ontzien barruan. 2005 urtean 40 hildako egon ziren, 2014 urtean, Tarajaleko hondartzan, 15 hildako eta azken ezbeharrak 2022ko ekainean gertatu zen, Melillako mugan 40 pertsona hil zirenean [Caminando Fronteras, 2022 b]. Bide honetatik egiten diren gurutzatzeak, taldean antolatzen direnean egiten dira batez ere ezagunak, 200-300 bat lagunek elkarrekin salto egitea erabakitzen dutenean, baina errealitatea, astero, marokoar jatorriko pertsona ugari muga hau gurutzatzea lortzen dutela da.

Migrazio bideak aldatzeak ez du arrazoi bakar batek eragiten, baina aldaketa ia guztietan, lurreko eta itsasoko mugak kontrolatzeko egiten den diru inbertsioak handiagotzeak du eragina [Lo Coco, Ladan, Cardona eta Berrio, 2021].

Eta zein dira bide bat edo bestea aukeratzearen arrazoiak? Bidaiaren kostu ekonomikoa izan daiteke erantzun nagusia. Europara iristeko paterak 1000€ eta 4000€ artean balio du. Beste arrazoi batzuk ere eman daitezke, hesitik gain salto egitea ezinezkoa izatea, *pasantearekin* tratua egin izana edota seme-alabak izatea, besteak beste.

Barne Ministerioaren arabera, 2022-ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31-ra bitarte 31.219 pertsona izan dira Espainiar Estatura modu irregularrean sartu direnak, lurretik eta itsasotik sartutakoak kontuan hartuta [Ministerio del Interior, 2022].

Dena den, Europara sartzeko herrialdea Espainia duten arren, migrazioaile gazteek erdialdeko eta ipar Europako lurraldeetan bizi nahi izaten dute; Frantzia, Alemania, Ingalaterra edota Belgikan. Honen arrazoi nagusiak, hizkuntza (frantsesa) eta lehenagotik Afrikar komunitateak edo euren familiak bertan finkatuak egotea dira [Araguren, 2021]. Irunera iristen diren pertsonak, migrazio bide luzea egin duten pertsonak dira, 6 hilabete eta 4 urte bitarte iraun dezakete migrazio bideek, gehienetan lehenago azaldutako zailtasunak pairatuz. 14 eta 30 urte bitarte dituzte, eta gehienak Mali, Ginea Konakry, Boli Kosta, Gambia eta Senegalekoak dira. Jatorrizko lurraldetik irteteko arrazoi ezberdinak dituzte, norberak berea, bai eta helmugako herrialdearen hautaketa propioa ere. Indarkeriatik ihes egiten eta euren burua babesten dakiten pertsonak dira.

Azken aldian, lagun hauen perfilean aldaketa batzuk ikusi dira:

- 3 hilabetetarako turista bisatua lortu duten mauritaniar geroz eta gehiago daude.
- Bide arriskutsua saihestuz, Marokoraino hegazkinez doazen pertsonak, gerora ontzira igotzen direnak Europara iristeko. Honek, bidaiak eragindako inpaktu emozionala gutxitzen du, bai eta hilabeteetako sufrimendua ere.
- Kasu batzuetan, 6-10 hilabetera gutxitzen da migrazio bidaia, orain arte ohikoena, gutxienez, urtebete eta bi urte artetik, lau urtetaraino izan denean.
- “dublinatutako” pertsona kopurua handitzen ari da.

Irunen dauden iragaitzazko pertsona migratzaileen artean, perfil ezberdinak aurkitu daitezke:

1. Irunera iritsi berri diren pertsonak

2. Frantziatik Irunera itzuliak izan diren pertsonak

3. Irunen babesa edota asiloa eskatu duten pertsonak

4. Pertsona “dublinatuak”

1. Irunera iritsi berri diren pertsonak

Bilbo, Zaragoza, Bartzelona, Madrid edo Burgosetik autobusez edo trenez egunero iristen dira Irunera pertsona migratzaileak. Batzuek, Gurutze Gorriak duen harrera zentroa ezagutzen dute, baina ez guztiek. Iragaitzazko pertsona migratzaileak artatzen dituen Irungo Harrera Sareko gautxori taldea, gauero eta urte osoan zehar, autobus geltokira gerturatzen da, iritsi berri diren pertsoneri harrera egin eta harrera zentroaren berri ematera. Gainera, geltokitik zentrorainoko bidea, lurrian margotuak dauden pausu berde batzuekin markatua dago. Iristen denean, pertsona migratzaileak muga gurutzatzeko larritasuna du eta bere hurrengo helmuga den Baionara lehen bait lehen iristeko beharra. Tamalez, ez dute muga honetako errealitatea ezagutzen. Nahiz eta azken muga honetara nekatuak, azken orduetan ezer jan gabe eta oso urduri iristen diren, irrikaz, gogoz eta indartsu daude. Batzuek, iritsi eta berehala egiten dute muga gurutzatzeko saiakera, beste batzuk ordea, Gurutze Gorrira atseden hartzera joatea erabakitzen dute eta besteek aldiz, euren bidea jarraitzeko, Irungo Harrera Sareko pertsona boluntarioek goizero, udaletxeko plazan ematen duten informazioa jaso arte itxarotea erabakitzen dute.

2. Frantziatik Irunera itzuliak izan diren pertsonak



Frantziar poliziak, behin baino gehiagotan harra-patu nau, baina lortu arte ez dut etsiko; gelditzen eta polizia-etxera eramaten banaute, egin didaten arinena izango da.

Frantziara sartzen ari zela polizia frantsesak gelditu eta itzuli ondoren hau dio Ibrahimak.



Frustrazioa, inpotentzia, amorrua, haserrea sentitzen dut.

Frantziako poliziarengandik itzuliak izan diren eta berriz muga gurutzatzeko zain dauden pertsonak ez dute etsiko, behin, edo gehiagotan gelditu dituzten arren, haien helburua lortu arte saiatzen jarraitzen dute. Saiakera ezberdinak egin ondoren, oraindik lortu ez badute, harrera zentroan hiru gau igartzeko aukera dute, oinarrizko higiene eta elikadura zerbitzuak jasoz, gurutzatze saiakerak dakarren neke mentalaren ondorioz, indarrak berreskuratzeko.

3. Irunen babesa edota asiloa eskatu duten pertsonak

Nahiz eta orokorrean Espainiar Estatura iristen diren pertsona migratzaile guztiak Frantzia edo Europako beste herrialde batera joan nahi dutela uste den, hauetako pertsona batzuk ez dakite zein den haien nahia eta helmuga. Euren bizitza Espainian zerotik hasteko saiakera egiten dute.



Nik Marokotik ihes egin nahi nuen, besterik ez, berdin zait nire bizitza berria non hasi.

Nazioarteko babesa edota asiloa, bere bizitza arriskuan egoteagatik beste herrialde batengandik babesa jasotzeko pertsona bati eskaintzen zaion laguntza da (ACNUDH, 2018). "Asilo eskubidea arautzen duen 12/2009 legeko 3.artikuluak honako hau dio: "errefuxiatu baldintza, arraza, erlijio, herritartasun, iritzi politiko, giza talde zehatz baten parte izateagatik edota genero edo orientazio sexualagatik jazarria izateko oinarritutako beldurrengatik bere herritartasuneko ez den lurralde batean egonda, lurralde horretako babesa jaso ezin duen edota esandako arrazoiengatik jaso nahi ez duen, edota herritartasunik gabeko apatrida den eta bere ohiko lurraldetik kanpo dagoen pertsonari, eta arrazoi berdin horiengatik itzuli nahi ez duen edota beldurreragatik itzuli ezin duen, eta aldi berean, 8.artikuluaren agertzen diren arrazoiengatik kanporatua ez dagoen edota 9.artikuluaren dardaren arrazoiengandik ezeztatua dagoen pertsona orori aitortzen zaio". Asiloa eta nazioarteko babesa kontzeptu berdinak direla zehaztu behar da.



Polizia Nazionalean asilo eskaera bideratu ondoren, CEAR-ek (Comisión Española de Ayuda al Refugiado) eskaintzen duen asilo programan sartzeko zain gelditzen dira. Nazioarteko babes eskatu duten pertsonak, ordea, berezitasun bat bizi behar izaten dute: plaza eskuratu bitartean, ez dute inongo baliabidera sartzeko edo erabiltzeko eskubiderik. Hau hobe ulertzeko, Yaoren kasua azalduko da.

“Yao, Boli Kostako mutil bat da eta 2020an atera zen bere lurraldetik. Lau herrialde gurutzatu zituen patera batean Europara iritsi baino lehen: Mali, Mauritania, Saharako basamortua eta Maroko. Bere patera Dakhlatik atera zen, eta hiru egunez itsasoan egon ondoren, 2021eko azaroan Itsas Salbamenduak erreskatatu zituen. Hiru egunez xedapen judizialaren pe egon zen, eta Raíces izeneko esparrura eramane zuten ondoren. Hilabete eman zuen bertan. Denbora horretan, nazioarteko babesari eta Dublineko arautegiari buruzko informazioa eman zion elkarte batekin egon zela dio Yao-k. Argi zuen berak Frantzia zela helmuga, Montpellier hiritik gertu familia-kide batzuk bizi ziren eta honek babes emozionala eta laguntza instrumentala eskainiko ziola bazekien. Irunen egon eta bi egunetara iritsi zen Parisera eta nazioarteko babes eskatu zuen. Pozaren pozez zegoen Yao Parisera iritsi izanagatik eta bere herrikideekin elkartzeagatik. Bizi proiektua Frantzian hasi eta zazpi hilabeteetara, Espainian dago Yao, eta ez berak erabaki duelako, Montepellieretik dublinatua izan delako baizik (Dublineko hitzarmena aurrerago azalduko da). Hegazkinez itzuli zuten Frantziatik Espainiara, eskuburdinak jarrita eta poliziaren-

gandik lagundua bidai osoan zehar. Madrileko aireportura iritsi zenean, Gurutze Gorriko gizarte langilearekin Dublineko araudiari buruz hitz egin zuen bere bulegoan, bai eta asiloa Europara sartzera zapal dutako lehen lurraldean eskatu beharri buruz ere. Bere kasuan, Espainia zen lurralde hau. Bigarren aldiz nazioarteko babes eskatu zuenean, Yao-k Espainian egin zuen, “ez dut Europara arazorik izan nahi, legeak asiloa Espainian eskatu behar dudala badio, bertan eskatuko dut, ez dut berriz ere dublinatua izan nahi, eta gainera badakit ez didatela Frantzian emango nazioarteko babes, Espainian eskatu behar baitut eta ez Frantzian”. Egun batzuen buruan, Polizia Nazionalean joan zen asiloa eskatzeko lehen instantzia egitera. “Non egingo dut lo Madrilan? Ez dut inor ezagutzen” galdetzen zion Yao-k etengabe bere buruari. Lehenengo egunetan gizarte zerbitzuetan gelditu zen, baina hirugarren egunean lo egiteko plaza gabe gelditu zen. CEAR-en (Comisión Española de Ayuda al Refugiado) babes integralko programan sartzeko zain zegoen bitartean lo egiteko toki baten eske itzuli zen Gurutzeko Gorriko bulegora orduan. “Ezin dugu ezer gehiago egin zuregatik, itxaron behar duzu” izan zen jasotako erantzuna. Momentu horretan Yao bulegotik atera eta norabiderik gabe Madrileko kaleetatik zehar ibiltzen hasi zen, “negar besterik ezin nuen egin, momentu hartan ez nintzen irtenbiderik bilatzeko gai. Asiloa eskatzera Espainiara itzuli behar naizela esaten dit Frantziak. Espainian asiloa eskatzen dut eta ez dute niretzat lo egiteko tokirik? Ez dut ulertzen errekurtsorik ez egotea, eskatzen dudana bakarra ohe bat da. Esaten didatena egiten dut eta kale gorrian gelditzen naiz”.

Babesa eskatzen duten pertsonen arteko beste adibide bat da honako hau; programan plaza lortzeko zain dauden bitartean, kale egoeran gelditzen dira. Ukrainiako gerraren eta egindako nazioarteko babes eskaera guztien ondorioz, errekurtsioak blokeatuak eta beteak daude, eta ez dago nahikoa baliabide pertsona hauentzat. Egoera hauetan, era informalean sortutako sareek eta herritar proiektuek, kudeaketa gaitasun eta empatia handia erakusten dute. Iruenen, nazioarteko babesa eskatu duten pertsona batzuk herriko etxe ezberdinetan artatuak izan dira. Etxe hauetako jendeak, euren ohea, janaria, espazioa, goxotasuna, laguntza eta espainol klaseak eskaini dizkiete.

Honetaz gain, Europako arautegiak asiloa Europako herri bakar batean eskatzea mugatzen du, eta herrialde hau Europara iristerakoan zapaldutako lehen herrialdea izan behar da. 2020 urtean, Kanariar Uharteetatik Irunera etorritako lagun askok, bertan jasotako gomendioen ondoren, iritsi berritan asiloa eskatu zuten. Euren iritzia, egoera edota Europako beste lurralde batera jarraitu nahi zuten ala ez kontuan izan gabe emandako gomendioa izan zen hau.



*Lanzarotetik ateratzeko asiloa eskatu behar nuela esan zidaten, babesa zela nik behar nuena, eta nik ba jaramon egin nien. Iragaitzako pertsona migratzaileek diotenez, nazioarteko babesa eta Dublineko hitzarmenari buruzko informazioa Gurutzeko Gorriko langileen eskutik jasotzen zuten iritsi berritan. Baina momentu horretan bizi zuten egoera emozionalaren ondorioz, ez ziren gai momentuan nahi zutenari buruzko erabakia hartu edota haien egoera juridikoaren arabera haurturik hoberena egiteko. **Momentu horretan ez nintzen guztiaz jabetzen, European legeak ezberdinak dira eta Gurutze Gorriak, nire egoeran, hoberena nazioarteko babesa eskatzea dela esaten badit, hori egingo dut, burua ez zegoen oso ondo eta. Bost egun itsasoan igaro ondoren iritsi ginen pateran, bi gizon itota hil ziren eta ulertuko duzunez, nire burua ez dago erabaki egokiak hartzeko moduan azaltzen du Aissak.***

4. Pertsona “dublinatuak”

Pertsona “dublinatuak”, Dublineko hitzarmena aplikatu zaien pertsoneri deitzen zaie. Dublineko hitzarmenak dioenez, Europar Batasunean era irregularrean sartu den pertsona orok, nazioarteko babesa Europan zapaldutako lehen lurraldean eskatu behar du. Babesa eskatzen duen pertsona batek, sarrera herrialdea izan ez den beste batean egiten badu eskaera, asilo programan sartzeko zain emandako 7-8 hilabete igaro eta gero, zapaldutako lehen herrialde horretara deportatua izaten amaituko du. Herrialdeen arteko deportazioak hegazkinez egiten dira. Hitzarmen honek eragiten dituen bizipen eta sentimenduak hobe ulertzeko, Samanthak bere esperientzia kontatu nahi izan du.

Samantha Frantzian bizi zen, Dax hiritik gertu. Astearte, ostegun eta ostiraletan goizeko 8:30etan prefekturan egon behar zen, sinatzeko. 2021eko maiatzaren 21ean, beti bezala gerturatu zen prefekturara sinatzera, eta ordu gutxi batzuen buruan Espainiara itzuliko zela esan zioten, legearen hitzak jarraituz. Ez zuen aurretiko abisurik jaso, momentuan eraman zuten atxikitze zentrorra eta bertan ordu batzuk igaro zituen. Aireportura eraman zuten Madrilera zihoan hegazkina hartzera. “Shock egoeran nengoen, ez nuen ezer ulertzen. Espainiak nire beharra zuela esaten zidan poliziak, eta horregatik itzuli behar nintzela. Baina, Espainiatik nik zer bait nahi al nuen?”. Beldur handia pasa zuela dio, benetan zer gertatuko zitzaion ez jakiteagatik eta batez ere, ez zuelako jakingo nola azaldu bere bost urteko alabari ama gabe egun oso bat igaro izana. 24 orduz alabarekin geldituko zen lagun bat bazuela kontatzen du Samanthak, baina uzteak izugarriko angustia sortzen ziola dio. Elkarrizketa burutzen zen bitartean ere, minutu gutxiro alabarekin bideo deia egiten zuen. 24 ordu baino den-

bora luzeagoan atxikita izan ondoren, Espainiara deportatua izan eta gero, alabarengandik separatua egotea nork irudika dezake? Aireportuan eskuburdinak jarri zizkioten eta horrela mantendu zuten hegaldi osoan zehar, gaizkile bat bezala sentitu zela dio, “ez dut lapurtu, ezta inongo krimenik egin ere eskuburdinak jarriak izateko, nire bizi-toki seguru batean berriz hasten saiatzen ari naiz eta Espainiara itzultzen aurkitzen dut nire burua. Gainera, diotenez Espainiara itzuliko nauen hegazkin batean igo naiz, eta haiengan konfiantza izan besterik ezin dut egin, hegazkin honek ez nauela nire herrialdera eramango nire alaba hemen bakarrik utziz pentsatu behar dut”. Emakume honek angustia izugarria zuen, Marokora edota bere jatorrizko herrialdera itzulia izateko beldur ikaragarria eta honek gosegabezia ekarri zion. “Egun batetik bestera migrazio bidea berriz hasten ikusten duzu zure burua, eta berriz ere, egoera traumatikoak bizitzen”. Madrilera aireportura iritsi zenean Samanthak ez zekien zer aurkituko zuen, eta edozein egoerari aurre egiteko prestatu zuen bere burua, bere alabarengan pentsatu eta indarrak atera zituen. Hegazkinetik atera eta Gurutze Gorriko langile bat zegoen gela batera eraman zuten. Iku-si zuenean, beregana gerturatu zen emakumea eta estu besarkatu zuen. Lasaitasuna sentitu zuen Gurutze Gorriko pertsona hau ikusi zuenean, Espainiara lehen aldiz iritsi zenean Kanariar Uharteetan izandako harrera ona izan baitzen eta alaitasunez gogoratzen baitzuen une hura. Madrilera Gurutze Gorriak zuen bulego batera joan ziren elkarrekin, ez du kokapen zehatza oroitzen: “Samantha, libre zaude, Frantziara itzuli zaitezke, ez dugu izapide gehiago egin behar”, izan zen bulego hartan jaso zuen erantzuna. Beste behin ere, ez zuen Europaren funtzionamoldea ulertzen; Frantzian gelditzen dute, eskuburdinekin hegan egiten du polizia bana alboan duelarik, Espainiara

*deportatzen dute eta Espainian ez diote inongo arazorik jartzen bere herrialde berrira itzultzeko. "Joan naiteke beraz? Bai noski". Horrela izan zen Samantharen Dublineko prozesua, eta 20 orduren buruan lrungo mugan zegoen berriz ere, beste behin muga gogor honen aurrean. Bere beharra, muga gurutzatu eta etxera itzultzea zen, bere alabarekin elkartzeko. *juntarse con su hija.**

Baina Dublinatua izateak zein eragin eta ondorio psikologiko ditu? Espainiar Estatuan era irregularrean sartu eta Espainia ez den beste herrialde batean nazioarteko babesa eskatu ondoren dublinatuak izan diren pertsona askok, esaldi berdinak errepikatzen dute "agian ez nuen babesa eskatu behar eta patua itxaron behar nuen" edo "inork ez gaitu bere herrialdean nahi" edota "zergatik esaten digute asiloa eskatzea ona dela, gero Espainiara deportatzen bagaituzte?". Europara bizitza hobe baten bila etortzeko erabakia egokia izan ote zen birpentsatzen du bi lurraldeengatik ezeztatua izan den lagunak. Hilabete luzeetan zehar, hiri berri batean bizitza zerotik hasteko eta bertan integratzeko esfortzuak egin ondoren, hasierako lurraldera deportatzeak emozionalki lur jota uzten du.

Ondorioen beste adibidea dugu Yaorena, legea jarraituz Espainiar Estatuan asiloa eskatu ondoren, kale egoeran dago, inolako baliabiderik gabe. Mespretxua eta traizioa sentitzen du orain herrialde honengatik. Samanthak duda handiak zituen babesa eskatu izanarekin, Dublineko hitzarmena ezagutu arren, European emakumeenganako indarkeria zorrozki zigortua zegoela esan baitzioten, eta bere lurraldean sufritzen zuen indarkeria, bere egoera irregularra baino larriagoa izango zela uste baitzuen. Bizitako guztia kontatzeko gaitasuna eta indarra atera zuen, eta guzti hau berriz ere Espainian kontatu beharrean ikusi zuen bere burua.



Nire senarrak harreman sexualak izatera behartzen ninduela eta nik, inongo gogorik izan gabe barneratzen ninduela, ia beti odoletan utziz kontatzea atsegina zaidala uste duzue? Erantzungo dizut nik neuk: ez, ez da batere atsegina

Samantha etxera itzuli zen, alabarengana, eta hilabete batzuk eman behar izan zituen polizia edo elkarte batengana berriz itzultzeko auserdia izan arte. Gertatutakoaren egoera antzekoa berriz ere bizitzeko beldurrak gain hartzen zuen. Yao ere Montpellierren eraikitzen ari zen bizitzara itzuli zen.



4.7. IRAGAITZAZKO PERTSONA MIGRATZAILEEN BEHARRAK

Iragaitzazko pertsona migratzaileek duten behar fisiko zein emozio-
nala, muga gurutzatu, helmugara iritsi eta *boza*, *boza* oihukatzea da.

Zein behar dituzten eta nola lagundu daitezken galdetzen zaienean,
honako erantzun hauek jasotzen dira:

Muga gurutzatzen lagundu

*Nire familiarekin harremanetan jarri behar naiz,
ondo nagoela jakin dezaten*

*Mentalki leher eginda nago, gelditu eta deskan-
tsatzeko beharra dut*

*Nire anaia atzo Marokon patera batera igo zen eta
ez dakit non dagoen. Angustia handia sentitzen dut*

Ahalik eta azkarren iritsi behar naiz Frantziara

*Ditudan paper guzti hauek azalduko zenizkidake?
Ez dut ulertzen, eta ez naiz azalpenaz gogoratzen*

*Poliziak harrapatzen banau zer pasako da? Joko
nau? Marokora itzuliko nau? Ez dut sinesten beste-
rik gabe itzuli erdia eman eta Espainiara itzultzeko
esan didatenik, inongo ondoriorik jasan gabe. Ziria
sartu didate*

*Nori eskatu behar diot nire egoera erregularizatzeko
laguntza?*

*Askok esaten didate lagunduko didatela, baina ez
dakit nor sinetsi, horrenbeste alditan sartu didate
ziria bidean zehar...*

*130€ bakarrik eskatzen dizkit muga gurutzatzeko,
egokia da?*

Jainkoak indarra ematen dit, eta lortuko dut

Galdera, zalantza eta beldur guzti hauen erantzuna, haiek behar du-
ten momentu eta tokian jasotzea ezinbestekoa da.

4.8. IRUNGO HARRERA SAREA (IHS)

Irungo Harrera Sarea 2018.urtean sortu zen, uztailen, Irundik iparralderantz zihozten iragaitzazko pertsona migratzaileek pairatzen zuten laguntza ezaren, inbisibilizazioaren eta harrera faltaren aurrean. Politikoki eragitea, iragaitzazko pertsona migratzaileei laguntza eskaintzea eta instituzioek betetzen ez dituzten beharrak artatzea dira taldearen helburu nagusiak. Azpi-talde ezberdinez osatua dago, eta biltzar bidezko funtzionamendua du:

- Harrera taldea: migrazio bidea jarraitzeko beharrezkoa duten informazioa eskaintzen du.
- Arropategiko taldea: migrazio bidea jarraitzeko arropa egokia eskaintzen du. Muga gurutzatu eta bidean aurrera egiteko garrantzitsua da arropa, Gurutze Gorriak pertsona hauei ematen dien arropa segituan ezagutzen baitu polizia frantsesak.
- Gautxori taldea: Gualdeko 21:00etatik aurrera, Irunera iristen diren pertsonak jasotzeaz arduratzen da. Bi hitzetan egoera azaldu ondoren, afaldu eta lo egin dezaten harrera zentrora laguntzen dituzte.
- Komunikazio taldea: komunikazioaren atalaz arduratzen dira, komunikabideekin, instituzioekin, beste elkarteekin harremanak,...



Harrera Sarearen “bulegoa” udaletxe aurreko plazan dago kokatua, kalean, aulki eta mahai batzuekin. Iragaitzazko pertsona migratzaileek behar duten informazioa eskaintzeaz arduratzen da lagun bat goizero: nazioarteko babesa, adinez nagusiak ez diren pertsonen egoera, emakumeekin zer ikusia duten gaiak, LGTBIQ+ pertsonak, Dublineko hitzarmena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko azalpenak, euren migrazio bidea jarraitzeko azalpenak, haien galderen erantzunak, eta abar. Oraindik ere, erakundeek ez dituztenez pertsona migratzaileen oinarrizko behar batzuk asetzen, sarea da honen arduraduna. Eskubideei buruzko informazioa, zerbitzu ezberdinei buruzko argibideak, deribazioak, arropa, laguntzak, familiarekin harremanak eta laguntza psikosoziala dira, besteak beste, aipatzen diren artatu gabeko beharrak.

Egunero daude boluntarioak pertsona hauekin, hitz egiten, espazioak, irriak, bizipenak, zailtasunak edota beldurrak elkarbanatzen.

IHS taldeak, Irungo iragaitzazko pertsona migratzaileentzako egiten duen eginkizun guztia baloratu eta goraiatzea nahitaezkoa da. Hau hala izanik, 2022 urtean lan talde bakoitzak artatu duen pertsona kopurua ikusi daiteke laburbilduta ondorengo taulan:

Gainera, iragaitzazko pertsona migratzaileei muga gurutzatu ondoren harrera egin eta laguntzeko, herritarrek sortutako hainbat harrera sare sortu dira mugaz bestaldean, Bidasoa Etorkinekin edota Diakité, adibidez. Honetaz gain, Baionako udaletxeak Pausa izeneko baliabidea ireki du, beste norako batera joan aurretik atsedean hartu, dutxatu eta elikatzeko aukera eskainiz. Gaur arte, gutxienez 10 lagun boluntario gelditu eta ordu batzuetan zehar polizia-etxean atxiki ditu frantses poliziak, egindako lan humanitarioarengatik. Kargu judizialik gabe atera dira guztiak. Dena den, azken aldian agerian gelditzen ari da autoritate frantsesak Frantziar aldeko geroz eta pertsona boluntario gehiago ari direla kontrolatzen eta laguntza humanitariao jazartzen. Honen aurrean, garrantzitsua da Frantzian elkartasun-delitua existitzen ez dela gogoratzea.

	HARRERA TALDEA	GAUXORI TALDEA	ARROPATEGI TALDEA
Urtarrila	497	414	193
Otsaila	576	373	156
Martxoa	527	403	114
Apirila	259	143	123
Maiatza	292	158	93
Ekaina	426	229	103
Uztaila	270	172	69
Abuztua	286	110	81
Iraila	271	177	69
Urria	299	142	40
Azaroa	255	111	70
Abendua	207	59	62
GUZTIKOA	3.703 pertsona	2.321 pertsona	1.041 pertsona



5. UN COLECTIVO ESPECIALMENTE VULNERADO: MENORES EXTRANJEROS NO ACOMPAÑADOS/AS

Milioika haur eta nerabek nazioarteko mugak bakarrik gurutzatzen dituzte eta familia erreferenterik gabe mugitzen dira, inolako babesik gabe. Adinez nagusiak ez diren haur eta gazte hauek, arrazoi ezberdinengatik egiten dute bidaia bakarrik [Unicef, 2017]:

- beste herrialde batean dauden familia-kideekin elkartzeko
- familiako indarkeriatik, gatazka armatutik edota familiako pobreziatik ihes egiteko
- familiako *salbatzailea* izateko (migratzeko eta jatorrizko familiari dirua bidaltzeko ardua gain hartuz)
- haur-ezkontzaz ihes egiteko, edota genitalen ebaketaz ihes egiteko, neskatilen kasuan
- familia bateri morroi gisa salduak izan ondoren, *jabearengandik* ihes egiteko
- etorkizunerako aukera ezagatik

Beren adin berdineko beste gazteek dituzten kezka, zaletasun eta behar berdinak dituzte, baina maitasuna, laguntza eta segurtasuna ematen dien familia-ingurunea oso urrun dute [Accem, 2022]. Europara iritsiz, migrazio bidean suertatzen diren zailtasunak gainditu dituzten arren, abusu, baztertze, delinkuentzia eta prostituzioarekiko zaurgarritasun egoera handian daude. Gainera, gehienetan euren eskubideen urraketa bikoitza jasaten dute, migratzaile baldintza izateaz gain, adin txikikotasuna ere dudan jartzen baitiete, era honetan adingabekoa izateagatik edukiko lituzketen eskubideak deuseztatuz.

Gazte hauek Europara modu irregularrean eta guraso gabe sartzerakoan, eta adin txikikoak direla diotenean, “mena erregistroa” aktibatatu eta froga biologiko eta psikologiko batzuk pasarazten dizkiete. Adinez nagusiak ez direla dioten nerabeen kasu gehienetan, adingabeak izatearen susmagarri gisa hartzen dira, zalantza babesaren aurretik lehenetsiz.



Kanariar Uharteetara iritsi nintzenean ez nekien 15 urte nituela esan behar nuen edo ez, ez nekien zer zen niretzat hoberena. Nire amak egia esateko esan zidan, Espainia ni laguntzeko zegoela eta batez ere, haurrak laguntzen zirela bertan. Iritsi nintzen eta 15 urte nituela esan nuen. Eskumuturreko eta masailezur frogak egin zizkidaten, eta nire irteera, bidaia, bidai lagun, bidea, eta abarrei buruz pertsona ezberdinekin hitz egin behar izan nuen. Aste batzuen buruan, epaileak adin txikikoa nintzela esan zuen. Adin txikiko asko ginen. Hau da Abdoulayek dioena, 2022ko Aste Santuan Madrillgo harrera etxe batetik ihes egin ondoren.

Helduen jokabideak izanda iritsi dira Europaraino, eta hona iristerakoan berriz ere haurren jokabideak hartu behar dituzte, gizarte honetan adin txikiko gisa integratu ahal izateko [Schippers, 2014]. *Mugikorra 21:00etan utzi behar genuen zentroan, 23:00etan oheratu behar ginen eta ezin ginen kanpora atera, ez eta zigarro bat erre ere. Presondegia ematen zuen.* Ez zuen ulertzen zergatik kentzen zioten mugikorra ordu horretan, utziko zuen berak nekatua zegoenean, azken hilabete luzeetan egin zuen bezala. Errutina bat izatearen arrazoia bilatzen saiatzen zen ere gazte hau (egunero ordu berdinean esnatu, kirola gutxienez astean bitan egin, mahaian eseriak zeuden guztiek bazkaltzen

bukatu arte eserita itxaron,...), eta kontu txiki guzti hauek ulertzea asko kostatzen zitzaion Abdoulayeri, eta honen kontura sufritzen zuen. Adin txikikoek European dituzten arauak ulertzea eta hauei egokitzea oso zaila egin zaiola kontatzen digu. 13 urterekin atera zen etxetik, beretzat eta bere familiaretzat bizi hobe baten bila, eta Europan iristen lehenengoa izan da. *Ez nuen haurrak horrela tratatuko gintuztenik espero, ninitzat gaituzte. Eta lan egin? Noiz utziko didate lan egiten?*, euren kulturarekiko guztiz ezberdina den lurralde- ra, Afrikatik bakarrik iritsi diren adin txikiko askok bizitzen dute kontraesan handi hau, eta asko ez dira ulertzeko gai izaten. Ulermen eza, nahas- mendua eta desorientazioa sortzen du haiengan gizarte, kultura eta egoera aldatze honek. Herrialde berri bat izateaz gain, kultura, pertsonak, arauak eta hezkuntza ere berriak dira, eta egokitzeko prozesua bere osotasunean emateko, adingabe-ko gazte bakoitzak prozesu indibidualizatu eta egokitua izan beharko luke. Migrazio bide osoan zehar biziraute eta autonomia estrategia ezberdinak garatu behar izan dituzte, dagokien adinaz oso urrun dauden rol eta paper ezberdinak hartuz. Baina bereganatu behar izan dituzten “biziraute estrategietako” batzuk, European askotan portaera desegoki gisa ikusiak dira [Schippers, 2014].

Emozionalki izugarri kaltetu dituzten egoera asko bizi izan dituzte haur guzti hauek euren bidaiari zehar, esperientzia gogor hauek segurtasun falta handiarekin lotura dutelarik. Gainera, etorkizunean berriz ere horrelako egoerak bizi ahal izateak muturreko beldurra eragiten die. Askotan, trauma, bideko galera, bidaiari zehar bizitako egoera desatsegin edo atzean utzitako familiarekin oroituz, estutasunak gainezka egiten die. Hau dela eta, maiz portaera auto-suntsitzaile eta suizidak izatera iristen dira. Europara iritsi berri diren gazte hauei oso zaila eta arraroa egiten zaie norberaren errealizazioan eta garapen pertsonalean zentratzea, eta euren iritzia ematera edota erabakiak hartzerako garaian haien hitza kontuan izatera ez daude ohituak. Gainera, deportatuak izatearen beldurrak eta autoritateekiko garatutako konfiantza faltak, laguntza eta babes eskatzea eragozten die. Euren bidea jarraitzeko eta jatorrizko herrialdera itzultzeko ezintasunen arteko linbo batean harrapatuak gelditzen dira orduan, antsietatea eta etsipena eraginez. Adin txikiko gazte hauetako batzuk, biziraute estrategien barruan, jokabide kriminalak garatu ditzakete, eta Europara iristerakoan, bidaiari eragindako sufri-menduaren ondorioz nahasmen ezberdinak garatu ere [Unicef, 2017; Schippers, 2014].

Europara iritsitako Inoren Kargura Ez dauden Adingabe Migra-tzaileen inguruan legearekiko eztabaida handia dago. Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, edozein indarkeria motaren aurrean haur eta nerabeek osotasun fisiko, psikiko, psikologiko eta morala izateko oinarriko eskubideak bermatzea du helburu, betiere euren nortasunaren garapen askea eta babes integrala ziurtatzeko neurriak plantan emanez [Boletín Oficial del Estado; 2021]. Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenak haur guztiak, edonon daudela ere, babesten ditu. Edozein kalterengandik babestuak izateko eskubidea dute, euren egoera juridiko eta herritartasun edo herritartasun falta kontuan izan gabe. Gainera, hezkuntza edo osasuna bezalako funtsezko zerbitzuak izateko eskubidea, euren familiarekin egon edota etorkizunean praktikan eragina izango duten erabakietan beraien interes gorena orientabidea izateko eskubidea dute [BOE, 2021; Unicef, 2017]. Abdoulayeren kasuan, *adin txikikoaren interes gorena* Europako beste herrialde batera joatea zen, baina legeak adingabe-koa babestea behartzen duenez, zein liteke irtenbide legala? Inolako ondorioz gabe adingabea joaten uztea, edota adingabea babesten duen legea jarraituz, joaten ez uztea, bere interes gorena alde egitea den arren?

Adinez nagusia ez den gazte bat europar begiekin artatzea zaila da, baina ezin dira erabaki guztiak *adin txikikoaren interesak* segituz hartu.

Jatorrizko herrialdean gelditu den familiak gehienetan argibide zehatz batzuekin eta itxaropenez beteak bidaltzen dituzte inoren kargura ez dauden adingabeak Europara, eta gazteek migratzea familiako kide guztientzako onuragarria izatea da oinarria. Baina gehienetan, familiak irudikatutako European, gazteek izango dituzten aukerak errealitatetik urrun gelditzen dira. Dirua bidaliko duenaren itxaropena, familia bertan elkartuko duenarena eta ikasketa arrakastatsuak eginez diru gehiago bidaliko duenaren ideia ez da errealista.

Egiazkoak ez diren ideia guzti hauek asko zapuztu ditzakete gazteak. Gainera, jatorrizko herrialdera dirurik bidaltzen ez badute edota esku hutsik itzuliko balira, baliteke familian berriro ongi etorriak ez izatea, familiek gehienetan, diru aldetik sakrifizio handiak egin behar izan baitituzte adingabeek bidaia egin ahal izateko.



Lotsa handia sentitzen dugu oraindik dirurik ez bidaltzeagatik, gudan konfiantza dute, baina ez dakite benetan nola gauden hemen. Familiarentzat lotsagarria izan zaitezke.

Adingabe bat edozein galderaren aurrean babestuko da eta batzuetan zaila da jakitea zure aurrean dagoen hori adinez txikia den edo ez. Gazte hauei, poliziarik izan ezik, gainontzeko inori ez zaiola adingabeak direla axola esatea garrantzitsua da. Adina galdetzen zaienean, helduek ez dituzten beste baliabide batzuk eskura izan ditzaketelako da, edota adinez nagusiak diren horiek ez dituzten behar batzuk sentitu ditzaketelako. Irundik, adingabe pertsona migratzaileak pasa dira; batzuk harrera etxetik ihes egin dute euren bidea jarraitu eta beste herrialde batera joateko, beste lurralde batean zeuden gurasoekin elkartzeko edo harrera etxeko arauak onartu eta obeditzea ezinezkoa egin zaielako. Beste batzuk aldiz, ez dute adinez nagusiak ez direla esan, eta helduak bailiran erregistratu dira.

Irungo harrera zentroan, adin txikiko migratzaileak ez dira onartzen, hauek babesteko ardura Gipuzkoako Foru Aldundiak baitu. Adingabe bat iritsiko balitz, Gurutze Gorriko gizarte langileak Ertzaintza deitzeko betebeharra eta ardura du, gerora hauek Donostiako UBA ize-neko larrialdiko harrera etxera eraman dezaten gaztea.





Ondorengo paragrafoan, adingabe batzuk bizi duten egoera hobeto ulertaraziko duen Irunera iritsitako gazte baten kasua azaltzen da:

Irunera iristen zen azken autobusean bi mutil zeuden. Gazteenak primeran hitz egiten du gaztelera, besteak aldiz, hitz gutxi batzuk ezagutzen ditu. Irungo Harrera Sareko boluntarioek Gurutze Gorrira laguntzen dituzte, eta kotxean doazen bitartean zentroari buruzko informazioa emateaz gain, Harrera Sareak eskaintzen dien espazio eta baliabideen berri ematen diete. Kotxetik jaisten direnean, espainola menperatzen duen gazteari adin txikikoa den galdetzen zaio, gazte itxura hartzen baitiote boluntarioek, eta agian erreferente heldurik gabe egon daitekeelako. Baiezkoa erantzuten du gaztelera, adingabea dela baina aitarekin dagoela. Gurutze Gorriko langileak dokumentazioa eskatuko dietela azaltzen zaio, eta aita-semea direla baieztatzeko paper horietan bien abizenak berdinak izan beharko direla. Orri batzuk ateratzen ditu orduan gazteak, eta Tenerifeko adingabeen babesaren erakunde publikoarenak diren dokumentu horietako batean, Inoren Kargura Ez dauden Adingabeko Migratzaile gisa aitortzen dela erakusten du. Berekin doan gizona bere aita dela dio, baina erakunde

publikoek oraindik ez diotela bere tutoretza eman azaltzen du. Honen aurrean, momentuko egoera azaltzen zaio: Gurutze Gorrian sartzen bada, adingabekoen harrera etxetik ihes egin duela ikusi ahal izango dute, eta bere aitak legalki tutoretza ez duenez (biologikoki bere aita izan ala ez), bera babesteko asmoz Ertzaintza deitu beharko dute. Bere aitak aldiz, gaua Gurutze Gorrian igarotzeko eskubidea izango du.

Adingabea Inoren Kargura Ez Dauden Adingabeko Migratzaile gisa aitortua zegoen, Espainiar Estatura sartu zenean bakarrik zegoelako. Patera ezberdinetan egin zuten bidaia aita eta berak, eta aitaren ontziak hilabete batzuk eman zituen Espainiara iritsi zen arte.

Ez adingabeak, ez eta aitak ere, ez zuten berriz bananduak izan nahi.

Gazte honen interes gorena, bidaia aitarekin segitzea zen. Inoren Kargura Ez Dauden Adingabeko Migratzaile gisa aitortua zegoen legalki, eta aitak bere tutoretza ez zuenez, ez zegoen inor adingabe horren betebeharrak bere gain hartzeko.

6. MUGARI ETEKINA ATERATZEA: PASANTEAREN IRUDIA

Pasanteak, diru kopuru baten truke, mugitu beharrean dauden pertsona bat edo batzuk toki batetik bestera eramaten ditu. Saharaz hegoaldeko jatorria duten pertsonak *auto-mafia* deitzen diote zerbitzu honi. Dokumentu honetan erabiliko den hitza *pasantea* izango da, *mafia* hitzaren jatorriak nahasmena ekar bait dezake.

Giza eskubideen aldetik ikusten bada, legez kanpoko trafikoak ez du bere horretan eskubide horien aurka egiten, eta jazartua den edota larritasun egoeran dagoen pertsona migratzaile bati nahiko neutroa den zerbitzu bat eskaintzeko modua izan daiteke [ACNUDH, 2018].

Pertsona migratzaileen esanetan, euren etxeetatik ateratzen diren lehenengo momentutik dute *pasante* ezberdinen kontaktua, bidean zehar alde batetik bestera mugitzen lagunduko dituztenak. Irune-ra iritsi bitarte, bideko momenturen batean norbait pagatzea oso ohikoa da gehienentzat, eta batzuetan ondo atera bazaie ere, beste batzuetan iruzur egin diete eta edonon utzi dituzte, baita mugatik kilometro askotara dauden gune batzuetan ere.



Autobus bat hartu genuen, 10 bat euro ordaindu eta Aljeriako mugara iritsi ginen; hortxe hasi zen kaosa. Erraza da gu ikustea beltzak izanik, eta hesiaren eta sasiaren artean ezkutatu behar gara. Ma-

rokoar batekin aurkitu ginen, eta ordainduz gero, polizia aljeriarrarekin hitz egingo zuela esan zigun gu pasatzen uzteko. Dirhametan ordaindu genion, baina ez dut oroitzen zenbat izan zen. Hiru mutil ginen. Beldurraren beldurrez nengoen, aljeriar polizia nolakoa zen kontatu baitzidaten. Berekin joan ginen, eta ordaindu ondoren kotxe baten atzean itxaroteko esan zigun. Ia gaua zen eta ezin nuen ezker eskuin begiratzeari utzi, zerbait gaizki aterako zenaren susmoa nuen. Otoitz egiten nuen nik, Alah-ri erregu egiten nion. Txistu-hots bat entzun genuen, eta hesian polizia aldaketa bat zegoela ikusi genuenez, gerturatzeko seinalea zela pentsatu genuen. Hurbildu ginenean arabiarrez zerbait esan eta barrezka hasi ziren. Ez nekien zer egin. Guregana gerturatu, beste zerbait arabiarrez esan, eta bate itxurako zerbaitekin bi kolpe eman zizkigun. Orduan, korrika, berriz ere ezkutatzera joan ginen dio 2020 urtean Ginea Konakrytik atera zen Abdoulayek. Ez dakizu norengan fidatu, norbaitek lagundu nahi banau primeran, eta ziria sartu nahi badit, patua izango da. Baina egia esan, pasanteari esker iritsi naiz ni Europara, haiek ez baleude nola gurutzatuko genuke itsasoa?

Pasante bati ordaintzeko erabakia hartzea ez da batere erraza. *Pasante* batekin harremanetan jartzerakoan, pertsona batek izan ditzaken zailtasunei erreparatu al diogu inoiz? Telefono zenbakia lortu, elkarrizketarekin hasi, ordu, prezio eta elkartzeko tokia hitzartu eta batez ere, mesfidantza sentitu. Prozesu guzti honetan zehar, nola sentitu daiteke pertsona?

Pertsona migratzaileetako batek, erantzunaren zain egotea oso luzea eta eramangaitza egin zitzaioala kontatzen du. Irungo mugan, bidea jarraitu ezinik zegoen, bost aldiz gurutzatzeko saiakera egin zuen eta bost aldietan gelditu eta itzuli egin zuten. Ahituta zegoen eta bidea jarraitu ahal izateko pertsona horretaz (pasanteaz) fidatzea erabaki zuen. Aldi berean ordea, berriz ere ziria sartuko ziotenaren beldur zen, bere migrazio biderako zuen dirua alferrik botako zuenaren beldur. Gainera, bidaian zehar izandako bizipenak txarrak izan ziren, uneoro ordaintzeko mehatxu eta presioak sufrituz, nori, noiz eta zenbat erabakitzeko eskubiderik gabe. Jasotako mehatxuak berari eta familiari zuzenduak ziren beti; “bidaia nirekin hartzen ez baduzu, zure familia deituko dut eta haiei eskatuko diet dirua” esaldia behin baino gehiagotan entzunez. Orokorrean, zerbitzu honekiko aurreiritzia txarra izan ohi da, erabiltzen duten pertsonentzako kaltegarria den aukera bezala ikusten da eta. Baina aitortu beharra dago, askotan, pertsona migratzaileak prezio onargarri baten barruan eramanak izan direla eta pasanteek beren lana behar bezala egin dutela, lagun hauei lasaitasuna eskainiz eta haien estres eta antsietatea murriztuz.

Irunen dauden *pasanteak*, beharra duten pertsona batzuegandik etekina ateratzeko denboran zehar sortu diren talde ezberdinak dira. Ez da nazioarteko sare bat, ez eta hierarkia jakin bat duen talde bat ere; zaugarritasun egoeran dauden pertsonen kariatara aberastea bilatu duen tokiko ekimen bat da Irungoa. Kasu batzuetan, talde ezberdinak banaka antolatzen ere iritsi dira, gainontzeko taldeekiko inolako koordinaziorik erakutsi gabe.

Pertsona hauek orain arte gurutzatu dituzten mugen eta Irungo mugaren artean ezberdintasun batzuk aurkitu daitezke. Ezberdintasun handienetakoa, muga hau pasa ahal izateko pertsona migratzaileek ez dutela zertan ordaindu da. Muga hau oso zabala eta luzea da, eta gurutzatzeko hainbeste bide ezberdin daudenez, polizia frantsesarentzat ezinezkoa da paso guzti hauetan 24 orduz zaintza egitea. Sagua eta katuaren jolasean aritzen dira; sagua pertsona migratzaileak dira eta katua aldiz, frantses polizia. Batzuk harrapatuak izango dira eta besteek gurutzatzea lortuko dute. Behin eta berriz saiatzea da muga honen gakoa. Baina muga honek ere bide arriskutsu batzuk ditu, eta azken urteetan tamalez, iragaitzazko pertsona migratzaile batzuk hil dira bertan.

Jarraian, Afrika eta Espainiaren arteko mugarekin konparaketa egin dezagun. Espainiako edozein lurrera eramango dituen ontzi batean igotzeko, 3000 bat euro ordaindu beharra dute. Europara bidai hau egin ahal izateko, hilabete edo urteetan zehar Marokon lanean ibili dira, askotan oso baldintza txarretan gainera. Egoera honetan daudenean, ordaintzea dute aukera bakarra. Baina Irungo mugan, Baionarako bidea ezagututa, bakarrik joateko aukera dute, inori ezer ordaindu gabe. Tamalez “ez ordaindu, dirua galduko duzu eta” esatea oso erraza den arren, pertsona migratzaile batzuk, helmugara iritsi bitarteko bide guztia egiteko ordaindu diote pasante bati, eta honek askotan lasaitasuna eta ziurtasuna ematen die.



Norbaiti ordaintzen badiot, helmugara eramango nauela badakit, eta hara iristerakoan ordainduko diot. Bi urte daramatzat bidaiari, iristeko eta deskantsatzeko beharra dut. Nekatuta nago. Ez zait axola hemendik Baionara joateko 130 euro ordaintzea dio Marianak. Hiru urtez gainean darman akidura fisiko eta mentala, bidaiaren prezioa baino handiagoa da beretzat.

Muga honek mentalki nekatzen du, batzuei pasatzen uzten dieten bitartean, beste batzuk atarian uzten dituzte.

Lehenago edo beranduago, pertsona migratzaile guztiek lortzen dute muga hau gurutzatzea

Puntu honetan, garrantzitsua da pertsonen salerosketa eta pertsonen trafikoa definitzea; pasantearen irudia, trafikatzaile eta salerosketa funtzioa duenarekin nahastua izan daiteke. Azken termino hau emakumeekin erabiltzea ohikoagoa da, migrazioko tresna gisa erabiltako indarkeria matxista mota bat da eta.

Palermoko Protokoloaren izenez ezagutua den Pertsonen Salerosketa Prebenitzeko, Ezabatzeko eta Zigortzeko Nazio Batuen Protokoloak, honako hau dio salerosketa terminoari buruz:

“Pertsonak hartzea, garraiatzea, lekualdatzea, edo harrera egitea, mehatxua, indarra edo beste hertsapen-modu batzuk erabiliz, bahiketa, iruzurra, engainua, botere-abusua edo kalteberatasun-egoera batera joz, edo ordainketak edo onurak ematea edo jasotzea, beste pertsona batekiko autoritatea duen pertsonaren baimena lortzeko”. Pertsona hauek esplotatzea da helburua (sexualki, laboralki, eskaletasun egoeran jarriz, organoen trafikoaren bidez, behartutako ezkontzekin edota ekintza kriminalak egitera behartuz), euren onespenerik gabe edota euren onespenera iruzurrezkoa denean, guzti honen truke, irabazi ekonomikoak lortuz.

Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi-Batzordearen (ACNUR) esanetan, pertsonen salerosketa honako hau da:

“Zuzenean edo zeharka onura ekonomiko edo beste onura material batzuk lortzeko helburuarekin, bertakoa ez den edota bertan behinbetiko bizilekua ez duen pertsona bati Estatu horretarako sarrera ilegala erraztea”.

Pertsonen trafikoa, bi aldeek onespina ematen duten ekintza da, helmugara iristerakoan amaitu eta nazioartean ematen dena. Salerosketa kasuetan aldiz, trafikorako onespina dago baina inoiz ez esplotatua izateko eta helmugara iristerakoan esplotazioak jarraitzen duenez, etekin ekonomikoak bere horretan segitzen du eta ez da nahitaez mugaz gaindi ematen, herrialdean bertan eman daiteke ere [Errefuxiatuen Laguntzarako Espainiar Batzordea 2018].



7. HERIOTZAK ETA DESAGERTZEAK

Migrazioen Nazioarteko Erakundeak, Desagertutako Migratzaileen Proiektuaren baitan, nazioarteko helmuga duten migrazio bidaietan edota Estatuen arteko mugetan hil diren pertsona migratzaileen (errefuxatu eta nazioarteko babesa eskatu duten pertsonak barne hartuz) kasuak jasotzen ditu. Munduko herrialde ezberdinetatik, edozein bide erabiliz bidean desagertu edo hil diren pertsona kopurua biltzen du.

2014. urteaz geroztik, Mediterraneoar itsasoan 25.271 pertsoa hil eta desagertu direla erregistratu da. 2022. urtean 2.023 pertsona hil eta desagertu dira, eta aurtengo oraingoan, 33 lagun dira Afrikatik Europarako bidean hil eta desagertutakoak. Hauek, erregistratutako datuak dirasoilik, beste ontziaskoez direla bidean atzeman jakinada, eta beraz, hildako eta desagertutako pertsona kopurua handiagoa izan daiteke.

Ez da hilabete bat bera ere pasatzen hildakorik egon gabe, eta hau pentsatzea zeharo beldurgarria da

[Caminando Fronteras, 2022 b]

Mugak ez du atsedeenik ematen, arriskua etengabekoa da



7.1. HERIOTZAREN KULTURA

Pertsona migratzaile batzuk euren etxeetatik bakarrik atera diren arren, migrazio bidean euren familia bilakatu diren harreman berriak sortu dituzte. Gertutasun emozionala, laguntza, elikadura, zaintza, kontsolamendua eta mantenua emango dien gertuko pertsona taldea izan daiteke familia hitzaren definizioa [Boss, 1999]. Pertsona migratzaileek kontatzen dutenez, *bidai osoan zehar lagundu nauten anai eta ahizpa asko ditut, nire familia kideak dira eta asko sufrituko nuke zerbait gertatuko balitzaie*. Kulturak, paper garrantzitsua jokatzen du heriotzari buruz ari garenean. Gizarteko ohitura eta kulturak, bai eta erlijioak ere, pertsona bat hiltzen denean sortzen diren erritu ezberdinak gidatzen ditu; elizkizun edo zeremonia bat, errautsak botatzea edota ehorzketa baten ondoren lagun edota familia kidea agurtzeko egiten diren otoitzak adibidez. Ekintza hauek, izandako galera behin-betikoa dela eta dolua hastea ezinbestekoa dela sentitzen laguntzen dute familia. Heriotzarekiko ematen den erantzuna ezberdina da norbanako bakoitzean, bai eta familia edo komunitate bakoitzean ere, eta erresilientzia pertsonalaren, babes sozialaren eta balio kulturalaren araberakoa izan ohi da. Izan ere, nahiz eta galera pertsonala izan, heriotza batek komunitateko eta familiako rolen antolaketan izugarrizko eragina du [International Federation of Red Cross and Red Crescent Societies, 2015; Caminando Fronteras, 2022 a]. Honelako prozesuetan, beldurra, haserrea, erruduntasuna, amorrua eta pena agertzen dira gehienetan, eta askotan nahasmen sentimenduarekin korapilatzen dira. Gainera, euren bizitzan aurrera egiteko duten desirak, erruduntasun sentimendua areagotzera eramantzen ditzake.



7.2. DESAGERTZEA

familia-kide edo lagun maite bat desagertzen denean, bestelako egoera baten aurrean gaude, pairatzen zailenetakoa den sentsazioa baita ziurgabetasuna: desagertutako pertsonarekin harremanetan jartzeko ezintasuna, non dagoen eta nola dagoen ez jakitea edota bizirik ote dagoen jakite ezak, izugarrizko sufrikarioa dakar. Familiak ezin ditu ez ukitu ez eta ikusi ere, eta nahiz eta fisikoki bertan ez egon, psikologikoki gertu sentitzen dituzte. Haiengan pentsatzen dute, aktiboki bilatzen dituzte eta euren oroimena bizirik mantentzen dute, etxera itzuliko eta dena lehen bezala izateko itxaropenez [Boss, 1999; Schippers, 2014]. Lagun maite bat bizirik ala hilik dagoen ez jakitea estugarria eta zeharo nekeza da. Gainera, gehienetan ez dute bizirik irtetea lortu dutenen aldetik informaziorik jasotzen, eta hau askotan, gorputza aurkitu ez den arren, familiak dolua egiteko beharrezkoa izaten da.

2021 eta 2022 urteetan zehar, gutxienez 9 pertsona hil dira muga inguruan Frantziarako bidea egin nahian [Eitb, 2022; El Pais, 2022 a; Gobierno Vasco b]. Mediterraneo itsasoan, Atlantiar ozeanoan, Ceuta eta Melilla edo Afrikan ez ezik, Europako migrazio bidean ere heriotzak gertatzen ari dira.

Tessfit Temzide 2021eko apirilaren 18an hil zen. Eritrear jatorriko 21 urteko gaztea zen. Bidasoa ibaiaren ertzean bere buruaz beste egin zuen.

Yaya Karamoko 2021eko maiatzaren 22an, muga igerian gurutzatu nahian, Bidasoa ibaian hil zen. Boli Kostakoa jatorriz, 28 urte zituen. Bere gorpua bi hilabetez egon zen Medikuntza Legaleko Euskal Erakundean, Burgoseko hilerrri musulmanean lurperatzea lortu zen arte. Hau, erakunde ezberdinek (Irungo mezkita besteak beste) mar txan jarri zuten diru bilketari esker lortu zen.

Abdoulaye Koulibaly 2021eko abuztuaren 8an hil zen, muga igerian gurutzatu nahian, Bidasoa ibaian itota. 18 urte zituen eta Ginea Konakrykoa zen. Eusko Jaurlaritzak ordaindu zuen gorpuaren aberri-ratzea, eta urriaren 6an iritsi zen bere jatorrizko herrialdera.

Mohamed Kemal 2021eko urriaren 12an hil zen Ziburuko trenbidetik gertu. Gaur egun, oraindik ere ez dago guztiz argi zer gertatu zen.



Fayçal Hamadouche 2021eko urriaren 12an hil zen Ziburuko trenbide-tik gertu. Gaur egun, oraindik ere ez dago guztiz argi zer gertatu zen.

Identifikatu gabea 2021eko urriaren 12an hil zen Ziburuko trenbide-tik gertu. Gaur egun, oraindik ere ez dago guztiz argi zer gertatu zen.

Sohaibo Billa 2021ko azaroaren 20an hil zen, Bidasoa ibaian itota, muga igerian gurutzatzeko saiakeran. 38 urteko mutil Boli Kostarra zen. Valentziako Alsalam izeneko hilerri musulmanean lurperatua izan zen 2022ko martxoan. Komunitate musulmana izan zen hiletazapideez arduratu eta gastu guztiak estali zituena.

Ibrahim Diallo 2022ko martxoaren 12an hil zen, muga igerian pasa nahian Bidasoa ibaian itota. 24 urte zituen eta Senegaldarra zen.

Abderraman Bah 2022ko ekainaren 18an hil zen, muga igerian pasa nahian Bidasoa ibaian itota. 25 urte zituen eta Ginea Konakrykoa zen.

*Muga gurutzatzen saiatu
eta migrazio bidea bukatzeko
irrikan iristen dira
pertsona migratzaileak,
eta mugan bizitzen dute egoera
emozionalaren, etsipenaren,
hersturaren eta presaren
eraginez, bide arriskutsuenak
aukeratzera iristen dira*

8. AMAIERAKO GOGOETA BATZUK ETA PROPOSAMEN BAT

Migrazio prozesuan zehar, fase ezberdinak bizi ditzake migratzen duen pertsonak: herrialdea uzteko erabakia, agurrak, Europara iristea, herrialde berrira integratzea, kokapena, emozionalki berrerortzea eta lurraldera berritzultzeko ideia [Delgado, Arza, Jedszejczak, 2020]. Prozesu guzti honen hasierako faseetan kokatu dezakegu Irun. Euren migrazio bidaia bukatu eta bizitza berria hasteko duten ilusioa eta gogoia, desinformazioa, orientazio falta, motibazio eza, ziurgabetasuna eta antsietatearekin elkartzen zaizkie.

Gurutze Gorriak Irunen kudeatzen duen harrera zentroan ez dago egonaldian zehar laguntza psikosoziala eskaintzen duen psikologorik. Zentrora iristen direnean eta bertan harrera egiten zaienean, segurtasuna eta konfiantza eskaintzea ezinbestekoa da, bai eta pertsonaren beharrak entzuteko prestatutako espazio pribatu bat ere. Hortaz, funtsezkoa den baliabide psikosozial honek, pertsona migratzaileek euren behar, esperientzia, beldur, angustia, antsietatea, kezka eta zalantzei buruz hitz egiteko espazio seguru bat eskaini beharko luke. Bidai luzearen ondoren, eta oraindik aurrean duten bidearen aurrean, pertsona hauek hauskortasun emozionala bizi dezakete, eta honek erantzun zehatz bat eskatzen du: laguntza psikosoziala. Lagun batek oinarrizko premia den arreta psikologikoa jasotzen duenean, bakardade eta etsipen sentimenduak gutxitzea lortzeaz gain, bere osasun mentala hobetzen du [Martínez y Martínez, 2018].

Mugarik Gabeko Medikuek Marokon izandako esperientziak erakusten du oinarrizko arreta psikosoziala eskaintzea egingarria dela eta honek, etorkizunean garatu daitezkeen osasun mentaleko arazo larriak prebenitzeko balio duela ere frogatu da. Osasun mentalean inbertsio ekonomikoa egitea eta nahia eta gogoia jartzea funtsezkoa da. Mugarik Gabeko Medikuek izandako esperientzia kontuan hartu daiteke, Irunen baliabide psikosozial hau jartzeko lehenengo pausuak emateko.

Hiru edo lau egunez soilik gelditzen diren testuinguruan eskaintzen den esku hartzea ez da inoiz terapia motako esku hartzea izango, hau ez baita inorentzat osasuntsua ez eta gomendagarria ere. Pertsonak dituzten indargune eta baliabideetan zentratzen da esku hartzea, eta ez horrenbeste gabezi edo ahultasunetan [Martínez eta Martínez, 2018]. Eskuhartzeak ikuspegi psikosoziala du, norbanakoen eta taldeen jokabide, emozio eta pentsamenduak barne hartzen ditu, hauek garatuak izan diren ingurune sozial eta kulturala aintzat harturik [OIM, 2018]. Askotan, egun gutxi gelditzearen ondorioz, lagun hauekin gertutasuna lortzea ezinezkoa dela pentsatzen da, baina hau ez da horrela. Pertsona migratzaileetako batzuk, Irunen gelditu gabe jarraitzen dute euren bidea, baina beste askok hemen egiten dute geldialdia. Irunen gelditzen direnak, nahiz eta eguneko ordu batzuetan zehar muga gurutzatzen saiatzen aritzen diren, gainontzeko ordu luze guztiak harrera zentroan igarotzen dituzte. Maiz, toki eta momentu informaletan sortzen zaizkio profesionalari pertsonetikiko

gertutasuna bilatu eta elkarrizketak sortzeko aukera; bazkaltzeko orduan, egongelan, kanpoan erretzen duten bitartean, mugikorrarekin daudenean, etab. Norbanakoaren beharretan zentratzen ari dela sentitu behar dute, entzunak eta lagunduak direla, eta ez morbo edo kuriositateagatik hitz egiten zaiela. Oinarri profesional baten ikuspegitik, babesa eta laguntza eskaintzean datza laguntza mota honek. Edozein laguntza humanitarioan erabilitako estrategia, laguntza psikosoziala eskaintzea izaten da; pertsonak lagunduz, adierazteko espazioak sortuz eta jasandako indarkeriak haiengan izandako inpaktu emozionala aintzat hartuz [Gobierno Vasco, 2020 a; Noticias de Gipuzkoa, 2018]. Beste testuinguruetan akaso, laguntza psikologikoa dudan jartzen al da? Adibide batzuk ekarri ditzakegu: Ukraina eta Errusiako errefuxiatuentzat, biktimak izan dituen tren istripu batean, Behobia-Donostia lasterketa batean,..., Egoera ezberdin haueetan laguntza psikosozialaren beharra agertzen da.

Pertsona migratzaileei egindako elkarrizketetan, euren istorio eta bizipenak kontatu dituzte, eta batzuk Irunen egon diren bitartean laguntza profesionala jasotzeko nahia erakutsi dute. Gurutzatzeko gelditzen zaien azken muga da Irungoa, aurrekoekin alderatuta, oso ezberdina, eta erronka berri bat da duena haientzat. *Gurutze Gorrian nagoenean, norbait nirekin egotea asko eskertzen dut, zer moduz nagoen galdetzea, bidaiari buruz hitz egitea, zer egin nahi dudan edo nora noan jakin nahi izatea, hau da, nirekin egotea eta laguntzea* dio Rosek. Pertsona migratzaileek espazio bat elkarbanatu eta hitz egiteko beharra izatea, egoera traumatiko ezberdinak bizitzearen ondorioa izan daiteke: saiakera ezberdinak egin ondoren muga gurutzatzeko ezintasuna, helmugara iristeko diru nahikoa ez izatea, Irungo harrera zentroan baimenduak dituzten 3 gauak jada erabiliak izateak, pasanteak iruzur egin izana, muga gurutzatu ondoren zer dagoen ez

jakitea, polizia frantsesarengandik harrapatua izana, muga hau gurutzatzeko zailtasunik izango ez zutela pentsatzea edota Europara iristerakoan bizitza berri bat hasteko, lana, dirua, janaria eta etxea erraz lortuko zutenaren ustea, besteak beste. Espazio hau, amankomunean duten egoera zital hau sufritzen ari direnekin eta egoera honi aurre egiteko estrategia ezberdinak dituztenekin elkarbanatuko lukete. Gaitasun mental ezberdinak martxan jarriz egiten diete aurre egoerari, eta nahiz eta bidearekin segitzeko bakoitzaren motibazioak ezberdinak diren, denek dute helburu berdina: muga hau, eragin eta inpaktu psikologiko txikiena sufrituz pasatzea.

Egia da oraindik ere zalantzan jartzen dela pertsona migratzaileek, bizi dutenari buruz hitz egiteko behar edo gogoia duten, ezberdintasun kulturala kontuan hartuta. Pentsamenduak, sentimenduak, frustrazioa, jasotako bidegabekeriak eta beharrak dituzten pertsonak dira, eta batzuetan ez dira gisa hontara hartzen. Euren bidaian zehar gertatutako guztiaz jabetzen dira, bai eta European dagoen arrazakeriaz eta etorkizunean izan ditzaketen zailtasunez ere. Nigeriar jatorria duen Carol izeneko emakumeak zioen bezala, *jada ez dut ezer galtzeko, hona iritsi bitarte asko galdu dut, European bizi on bat izateko eta askatasunez bizitzeko borrokatuko dut*. Erresilienteak dira, borrokalariak, eta bizitzan helburuak dituzte. Inongo arrazoi gabe gaizkileak direla sentitzen dutela kontatzen dute askok, egin duten bakarra bizitza hobe bat bilatzea izan denean. Eta bilaketa horretan laguntza profesionala jasotzea ezinbestekoa da. Laguntza honek, pertsona migratzaileentzako oso baliagarria den informazioa elkarbanatzea baimenduko luke: mugaren funtzionamoldea azalduko zitzaizen adibidez, edota poliziak, haiek gelditzerakoan egiten duena (zuriak ez direlako eta egoera irregularrean daudenaren susmoa izan dezaketelako), kontrol arrazistak direla.





Jakina da pertsona migratzaileak Europara espektatiba zehatz batzuekin etortzen direla, baina euren paterak erreskatatzen dituztenean eta europar sistemaren baitan sartzen direnean, poliki-poliki, eta Europako hitzarmen eta komunitatearekin harreman gehiago sortzen doazen heinean, itxaropen horiek desagertzen hasten dira. Esan beharra dago, espektatiba hauek askotan bidearekin jarraitzeko motibazio gisa erabiltzen dituztela, eta aldi berean, espektatiba horiekin bat egiten ez duen errealitate berriari men ez egiteko estrategia direla.

Espektatiba edo itxaropenak, orokorrean, honako faktore hauekin dute harremana:

- Helmugara iritsi bezain laster etxe bat, lana eta janaria izatea
- Europa paradisua dela pentsatuz, jatorrizko herrialdeetan eta bidean zehar bizitako infernua ahaztea
- Afrikatik adingabekoak ekartzeko asmoz, familia berrelkartzeko eskaera egiteko aukera izatea
- Egunerokotasunerako laguntza ekonomikoak jasotzea

Ideia idiliko guzti hauei aurre egitea oso nekeza da, eta pertsona hauek euren pentsamendu eta sentimendu irrazionalak ulertzen laguntzea oso garrantzitsua da. Dena den, ezinbestekoa da norbanakoak, bizirauteko sortu behar izan duen babes emozionala ez ahultzea.

Ohikoa da pentsatzea gurutzatu nahi duten pertsona migratzaile guztiak polizia frantsesarengandik geldituak izan direla, behin baino gehiagotan saiakera egin dutela edota mafiak iruzur egin diela. Hala ere, ez da ahaztu behar pertsona edo talde bakoitzak modu ezberdinean bizitzen duela muga pasatze hori: batzuk euren kabuz eta lehenengo saiakeran lortzen dute, besteak polizia frantsesarengandik geldituak izaten dira, pasanteari ordaindu eta helmugara iristen direnak ere badira, eta euren dirua lapurtu eta gero Behobiara edota Bera inguruko Nafarroako beste herrixka batera eramanez izan direnak ere badaude. Iragaitzako pertsona migratzaileak ez direnak baino zailtasun handiagoak dituztenez, bidea gurutzatzeko oraindik eta gehiago borrokatuko dute eta hau lortzeko bide ezberdinak bilatuko dituzte, euren bizia arriskuan jartzera iritsiz.

Euren herrialdetik atera zirenetik, eragile ezberdin askok laguntza etengabe eskaintzen dietela sentitzen dute pertsona migratzaileek. Herritarrak, Gobernu Kanpoko hainbat Erakunde edota elkarte ezberdinek enpatiaz eta eskuzabaltasunez jokatzeko dute laguntza eskaintzeko garaian, baina ezin da ahantzi, pertsona migratzaileek eskainia zaien laguntza ukatzeko eskubidea ere badutela, betiere lagundu nahi dutenen aldetik kexarik jaso gabe. Boluntario gisa dabilen zati handi batek ahaztu egiten du laguntza eskaintza bat egiten denean, laguntza jasoko lukeen horrek ez duela zertan eskainitakoa datorren bezala onartzeko beharrik, izan ere, pertsona honi laguntza nahi duen eta laguntza zertan behar duen galdetzea funtsezkoa da. Honek, erabakitze eskubidea izan dezaten baimentzen du.

Eskuhartze psikosozial ezberdinak daude, eta gehien erabilitakoak, betiere ikuspegi transkulturalan oinarriturik, lehen sorospen psikologikoak eta krisialdietako esku hartzeak dira:

- *Lehen sorospen psikologikoa*, berehalakoa eta laburra den giza laguntza ematean oinarritzen da. Minaren arriskua ekidin eta pertsonaren egonkortasun emozionala berreskuratzea da bilatutakoa. Esku-hartzearen fokua, momentuko krisialdia da, iraganean pertsonak bizi izan dituen gertakari ezberdinak kontuan izan gabe. Helburuak aldiz, sufrimendu psikologikoa arintzea, ondoezaren larriagotzea prebenitzea eta momentuan behar duen laguntza praktikoa eskaintzea dira.
- *Krisialdietako esku-hartzeak*, norbanakoaren oreka psikologikoa berreskuratzen laguntzen du, gerora autonomiaz aritzeko maila jakin bat lortzera bideratuz [Muñoz, Ausín eta Pérez-Santos, 2007].

Egoeraren araberako esku-hartze zehatzago bat beharrezkoa balitz, heziketa interbentzio bat edota debriefing psikologikoa deituriko eskuhartzea plantan jarri daitezke.

Garrantzitsua da jendea laguntza jasotzera ez behartzea, baina behar dutenentzako, bertan egotea ezinbestekoa da. Hau horrela izan dadin, profesionalak entzule ona izan behar du, laguntzazkoa den komunikazioa eskainiz, sortu daitezken zalantza edo beharrei aurre egiten lagundu eta entzute arduratsua emateko. Norbanakoak

ziurtasunean sentitzen lagunduko ditu, ulertuak eta zainduak direla transmitituz, modu honetan euren ondoeza txikiagotuz [Doctors Without Borders, 2013]. Honetaz gain, azpimarratu, lan esparruak duintasuna, kultura eta pertsonaren gaitasuna errespetatu behar dituela, betiere alderdi pertsonalen eta inguruneko alderdien arteko interakzioa kontuan hartuta. Esku-hartzeak bilatuko duena, beti, norbanakoaren ahalduntzea izango da, bere kabuz eta aktiboki bere bizitzaren kontrola berreskuratzeke.

Arestian aipaturikoa kontuan izanik, Irungo harrera zentroaren funtzionamenduaren zenbait alderdi aldatu litezke iragaitzako migratzaileen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko. Arreta integrala eskaintzen duen espazio bat izatea zaila den arren, xehetasun batzuk lagungarriak izan daitezke. Alde batetik, pertsona hauen behar nagusia muga gurutzatzea da, eta kontuan eduki behar da harrera zentroa mugatik 15 kilometroetara dagoela. Udako hiru hilabeteetan, gehienetan eguraldia goxoa da, eta ibiltzeko ordaindu behar ez denez, ez dago aparteko arazorik. Baina gainontzeko hilabeteetan, askotan euria egiten du (aste osoak euripean pasatzea ere ohikoa da) eta garai hauetan, ondorio emozional eta ekonomikoak areagotzen dira: harrera zentrotik mugara eramango dituen autobus edo taxia ordaindu behar da (aintzat hartu lehenengo aldiz lortzen ez badute, bidaiak biderkatzen direla eta horrenbestez, kostua ere handitzen doala) eta oinez joanez gero, eguneko argi orduak murriztu egiten dira. Hori dela eta, honi aurre egin eta galerak murrizteko, harrera zentroa mugara gerturatzea aukera bat izan daiteke.

Dena den, mugarekiko dagoen distantzia fisikoa ez da pertsonen ongizatean eragiten duen alderdi bakarra; harrera zentroan atseden

hartzeko dituzten egun kopuru mugatuak ere garrantzia handia du, izan ere, elkarrizketatu diren pertsonen gehiengoak, bost eta zazpi egun artean pasa behar izan ditu zentro honetan, eta ez haiek erabaki dutelako, muga gurutzatzeko zailtasunak aurkitu dituztelako baizik. Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazioen Ministerioak dioenez, harrera zentro honetan sarbidea izateko irizpideetako bat, iragaitzazko pertsona migratzailea izatea da. Iragaitzazkoa, hau da, gelditzeko etorri ez dena, mugimenduan dagoena, eta helburutzat Estatuan gelditzea edota harrera zentroan bizitzen gelditzea ez duena. Bestalde, zentrorira iristen direnean egiten zaien hasierako elkarrizketan, “Frantziara jarraitzeko asmoa duzu?” galdera luzatzen zaie, honek zentroko funtzionamoldea eta pertsona hauengandik itxaroten dena argi uzten duelarik. Beraz, pertsona migratzaileen nahia zein den ezagututa (eta nahia gutxi balitz, gehiengo handiaren joera zein den aztertu ondoren), zergatik jartzen diote muga bat zentroan gelditzeko egun kopuruari? Iritsi berri den pertsonak, hiru egunak agortu baino lehen lortu behar du muga gurutzatzea, eta bestela, haiek dioten bezala, “arazoak, anai/ahizpa”. Irteteko epe-muga bat jartzerakoan, zuzeneko presioa eragiten zaio pertsona migratzaileari, eta honek eragin zuzena du bere ondorenez. Gainera, psikologikoki, ezberdintasun handia dago hiru egunez edo zazpi egunez atsedean hartzeko aukera izan. Dena den, batez ere bizitza antolatu, kontrola berreskuratu eta prest sentitzen denean gurutzatzeko erabakia hartzea bere esku ez egoteak, eta saiakera horiek inposatutako epemuga horren arabera izateak du eragin handiena. Egundik kopurua mugatua izatearen arrazoia zentroko ohe kopurua balitz, 2022ko martxoan Ukrainako gerlatik ihesi zetozen pertsona errefuxatuentzako prestatu zen 150 pertsonentzako gaitasuna zuen baliabidea martxan jarri zitekeen. Honetaz gain, Espainiar Estatuko Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioak eta Eusko

Jaurlaritzak elkarrekin lan egingo balute, baliabide nahikoak daudela antzemanaz, dauden beharrei erantzun egokiagoa emango liekete arreta psikosoziala eskainiko zuen errekurtsua proposatuz.

Azkenik, lehenago aipatu dugun moduan, Espainiar Estatura iristen direnean, pertsona migratzaile eta errefuxiatuei eskaintzen zaien lehen arreta humanitarioa kudeatzen duen entitatea Gurutze Gorria da. Hauengandik artatuak izateak, penintsulan zehar entitateak dituen beste zentroetan egotera baimentzen ditu. Hala ere, iritsitakoek arreta humanitarioko programari ez afiliatzea erabaki dezakete, eta beren migrazio bidearen hurrengo pausua zein den beren kabuz erabaki, baina erabaki hau hartzen badute, entitateak eskaintzen dituen beste zerbitzuak erabili ezinik gelditzen dira, bai eta zentroetarako sarrera gabe ere. Zergatik ez zaie lagun hauei, edozein helduri ematen zaion bezala, beren biziarekin nahi dutena egin erabakitzeke eskubidea ematen? Iritsitako momentuan hartu beharreko erabaki horrek, datozen egun eta asteetan ondorioak izango ditu haiengan, eta honek emozionalki eragin zuzena du ere.

Bukatzeko, Irungo harrera zentroan ematen diren egonaldiak, jasotako kontakizun batzuen arabera, bi motatakoak izan ohi dira: Alde batetik, atsedean hartu eta jasandako inpaktu fisiko zein psikologikotik osatzeko erabiltzen den egonaldia, berehala bidearekin jarraitzeko asmoa duten lagunek egiten dutena. Bestalde, denbora gehiago luzatzen den egonaldia, osasun fisiko edo emozionala dela eta, edo zailtasun ekonomikoengatik ala helmugan dauden familia kideekin harremanetan jartzeko zailtasunengatik luzatu daitekeena hain zuzen ere. Itxaroten ari diren egun horietan, pertsona migratzaileak lagundu eta euren beharrei erantzungo dien psikologo baten presentzia eta esku-hartzea ezinbestekoak dira.



8.1. IKERTZEN JARRAITZEKO BEHARRA

Lehen momentu hauetan ematen diren jardute eraginkorrenak sistematizatu behar dituen ikerketa eta aplikazio esparru berri baten hastapenaren hasieran gaude. Ikertzea eta beharrezko baliabideak martxan jartzea ezinbestekoa da, eskuhartzeak etorkizunean gerta litezkeen kalte psikologikoak ekiditeko izan dezakeen eskumena ezagututa [Muñoz, Ausín eta Pérez, 2007].

Eskuhartze psikosozial bat abian jarri nahi denean, garrantzitsua da inplikaturako pertsona, onuradun gisa hartzeaz gain, eskuhartzearen protagonistatzat hartzea ere, eraldatze sozialerako boterea duten subjektu aktiboan bilakatuz. Gure kasuan beraz, baliabide psikosozial hau abiarazterako orduan, protagonistak pertsona migratzaileak izango lirateke. Modu honetan, eskainiko litzaieken laguntzak, euren egoera propioaren kontrola lortzeko behar dituzten bide eta eginmoldeak erabakitzeko aukera baimenduko luke. Eta hau, zuzenean pertsonen galdetuz lortu daiteke, euren behar eta gaitasunak identifikatuz eta eskaera zuzenak oinarri gisa hartuz, laguntza egokia eskainiz.

Osasunaren Mundu Erakundearen Osasun Mentalari buruzko 2013-2030 Ekintza Plan Integralaren helburuetako bat, ingurune komunitarioetara integratzen eta egokitzen den gizarte laguntza eta osasun mental integral zerbitzuak hornitzea da. Aldi berean, pertsona migratzaile eta babeska eskatu duten pertsonen gizataldearentzako, nahiz giza larrialdietarako, baliabide eta laguntza ezberdinak abian jartzeko garrantzia azpimarratu dute [Osasunaren Mundu Erakunde, 2022].



8.2. PROPOSAMENA

Dokumentuan zehar ikusi dugunaren arabera, norbanakoaren osasun mentala eta ongizatea ziurtatuta egon dadin, bide luzea dago egiteko oraindik. Baina zein izan daiteke laguntza baliabide hau eskaintzeko lehen pausua? Irungo harrera zentroan dauden bitartean, iragaitzazko pertsona migratzaileak lagunduko dituen baliabide psikosozial profesionalizatu bat abian ezartzea. Psikologo profesional hauek, pertsona migratzaileek behar luketen momentuan esku-ragarri eta prest egon beharko lukete eta garrantzitsua da hitzak berak diona azpimarratzea: egon, eta gerora, profesionalki lagundu. Behar hau erreala da, gaur egungoa, eta batez ere, iragaitzazko pertsona migratzaile batzuk eskatua.

*Bukatzeko, botere publikoek
dute, besteak beste, pertsona
migratzaileak lagunduko dituen
programa abian ezartzea
erabakitzeko ardura*





9. ERREFERENTZIAK

IKERKETA ZIENTIFIKO AKADEMIKOAK

Abdelaziz, Siham y Fernández, Mercedes. (2019). "Migrantes Sub-saharianos en sus primeros asentamientos pre y post frontera española". *Aposta: Revista de Ciencias Sociales*, 80, 27-43.

Achotegui, Joseba. (2000). "Los duelos de la migración: una perspectiva psicopatológica y psicosocial". *Medicina y cultura: Estudios entre la antropología y la medicina*, 83-100.

___ (2008). "Duelo migratorio extremo: el síndrome del inmigrante con estrés crónico y múltiple (Síndrome de Ulises)". *Revista de Psicopatología y salud mental del niño y del adolescente*, 11(15-25), 1695-8691.

___ (2009). "Migración y salud mental. El síndrome del inmigrante con estrés crónica y múltiple (síndrome de Ulises)". *Revista de servicios sociales*, 46, 163-171.

Aruj, Roberto. (2008). "Causas, consecuencias, efectos e impacto de las migraciones en Latinoamérica". *Papeles de población*, 15(55), 95-116.

Aranguren, Eva. (2021). *Apoyo emocional para las personas migrantes en tránsito en el dispositivo gestionado por Cruz Roja en Irun*. (Trabajo fin de máster). Universidad de Deusto, Bilbao, País Vasco.

Barbero, Iker. (2017). "La readmisión de extranjeros en situación irregular entre Estados miembros: consecuencias empírico-jurídicas de la gestión policial de las fronteras internas". *Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho*, 36.

___ (2020). "A ubiquitous border for migrants in transit and their rights: analysis and consequences of the reitroduction of internal borders in France". *European Journal of Migration and Law*, 22 (3), 366-385.

___ (2022) a). "Racismo(s), prácticas policiales discriminatorias y los contrôles au faciès en Francia" en Solanes, Ángeles, *Dinámicas racistas y prácticas discriminatorias "La realidad de España, Francia, Italia, Dinamarca y Finlandia"* (pp. 171-196). Thomson Aranzadi.

___ (2022) b). *El tránsito de personas migrantes desde la perspectiva de los derechos y la acogida digna*. Tirant lo blanch. <https://doi.org/10.7203/CEFD.36.10640>

Barbero, Iker y Donadio, Giacomo. (2019). "La externalización interna de las fronteras en el control migratorio en la UE" muchas gracias. *Revista CIDOB d'afers internacionals*, 122, 137-162. <https://doi.org/10.24241/rcai.2019.122.2.137>

Becerra, Margarita y Altimir, Laura. (2013). "Características y necesidades de las personas migrantes que consultan en salud mental: la emergencia del fenómeno de encuentro intersubjetivo de negociación intercultural". *De familias y Terapias*, 22(35), 101-118.

Boss, Pauline. (1999). *La pérdida ambigua. Cómo aprender a vivir con un duelo no terminado*. Gedisa.

Buraschi, Daniel y Aguilar, María José. (2022). "Las ONG en la reproducción del racismo institucional: análisis de la intervención social en espacios de tránsito migratorio" en Babero, Iker, *El tránsito de personas migrantes desde la perspectiva de los derechos y la acogida digna* (pp. 103-121). Tirant lo blanch.

Blanco, Cristina. (2022). "La inmigración en tránsito a través del País Vasco. Recursos institucionales y características básicas" en Babero, Iker, *El tránsito de personas migrantes desde la perspectiva de los derechos y la acogida digna* (pp. 145-188). Tirant lo blanch.

Campani, Giovanna. (2019). "La migración europea y la crisis de los refugiados: un proceso complejo y multifacético". *Collectivus, Revista de Ciencias Sociales*, 6(1), 15-33. <https://doi.org/10.15648/Coll.1.2019.02>

Delgado, Sergio; Arza, Javier y Jedrzejczak, Adrian. (2020). "Guía psicológica para emigrantes". *Psicología en la Red*. <https://psicologiaenlared.com>.

Martinez, Manuel Francisco y Martinez, Julio. (2018). "Procesos migratorios e intervención psicosocial". *Papeles del Psicólogo*, 39(2).

Montagud, Nahum. (25 de julio de 2019). "Las 11 causas y consecuencias de la migración. Las personas desplazadas a otros países suponen un reto para los países de acogida". *Psicología social y relaciones personales*.

Muñoz, Manuel; Ausín, Berta y Pérez, Eloísa. (2007). "Primeros auxilios psicológicos: protocolo acercarse". *Psicología Conductual*, 15(3), 479-505.

Ventura, René. (2011). "Atención psicosocial en desastres. Temas para entrenamiento". Editorial Ciencias Médicas.

Umaña, Silvia y Zárate, Auria. (2014). "Manual de intervención psicosocial en desastres de la Brigada de Apoyo Psicosocial en Emergencias y Desastres de la Universidad de Costa Rica".

INSTITUZIO ETA ERAKUNDE SOZIALEN TXOSTENAK

Accem. (2022). *Adolescentes como todos que necesitan una familia como todos*.

Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Refugiados. (2018). *Protección internacional: la esperanza de millones de personas*.

Andrades, Amanda; Gandarias, Itziar; Ferri, Ana y de Lucas, Beatriz. (2020). *Vidas que cruzan fronteras. Un análisis feminista sobre la Frontera Sur*. ZEHAR Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi.

Boletín Oficial del Estado [BOE]. (2021). Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia. España.

Caminando Fronteras. (23 marzo 2020). *Informe "Vida en la necrofrontera"*.

___ (17 de noviembre de 2022) a). *Tras la frontera.*

___ (2022) b). *Monitoreo derecho a la vida: primer semestre 2022.*

Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi. (2018). *10 recomendaciones para informar sobre la trata con fines de explotación sexual desde el derecho de asilo. #refugiadas.*

Doctors without borders. (13 de marzo de 2013). *Violence, Vulnerability and Migration: Trapped at the Gates of Europe. A report on the situation of sub-Saharan migrants in a irregular situation in Morocco.*

Gandarias, Itziar. (2017). *Estoy viva. Cartografías de resistencias de mujeres provenientes de África subsahariana.* Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi.

International Federation of Red Cross and Red Crescent Societies. (2015). *Broken Links: Psychosocial support for people separated from family members. Training module.*

Lo Coco, Daniella; Landa, Sani; Cardona, Diana y Berrio, Andrés. (2021). *Vulneraciones de derechos en la frontera sur: Gran Canaria y Melilla.*

Ministerio del Interior. (2022). *Inmigración irregular 2022. Datos acumulados del 1 enero al 15 de noviembre.* España.

Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos [ACNUDH]. (2018). *Situación de los migrantes en tránsito.*

Organización Internacional para las Migraciones [OIM]. (2018). *Guía para la atención psicológica a personas migrantes en Mesoamérica.*

___ (2022). *Plan de Acción Integral sobre Salud Mental.*

Unicef. (2017). *Ante todo, son niños: proteger a los niños y niñas en tránsito contra la violencia, el abuso y la explotación. Resumen ejecutivo.*

Schippers, Marjan. (2014). *Working with the unaccompanied child. A tool for guardians and other actors working for the best interest of the child.*

PRENTSA

Crónica Vasca. (16 de enero de 2022). Quién es quién en el drama migratorio de Irun. *Navarro, José Manuel.*

Diario Vasco. (9 de mayo de 2022). La llegada de migrantes a Irun cae un 50% el último mes. *Ortiz de Guinea, Oskar.*

Eitb. (18 de junio de 2022). 10 muertos en un año: sueños truncados en el Bidasoa. *Jauregi Eider.*

El País. (18 de julio de 2022) a). Irun: muere ahogado un joven inmigrante en el río Bidasoa. *EFE.*

El Salto. (18 de mayo de 2022). Migración de Francia. Irun, el cerrojo migratorio de Francia. *Balanzategi, Ander.*

Gobierno Vasco. (27 de noviembre de 2020) a). 333 personas migrantes en tránsito hacia otros países europeos han sido acogidas en las últimas semanas en el albergue de Irun.

___ (12 de marzo 2022) b). El Gobierno Vasco reclama itinerarios seguros para todas las personas.

Noticias de Gipuzkoa. . (19 octubre, 2018). El albergue Martindozenea de Irun podrá ser usado para la acogida de migrantes en tránsito también durante el día. *Europapress.*





Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbidetza, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN